1/003
4-36
1932

3,4-36

BIOTZ-BEGIETAN

Olerkiak

Lizardi

(Poesías vascas, con traducción castellana)

LOIOLA
E. L.

Lizardi

Auŕe-itza "Orixe"k

R 1834

DOMUS-TORNACENSIS
I.H.S.
BIBL. JUN.
A.M.D.G.
S.J.

BILBAO
Imp. y Lit. E. Verdes Achirica
1932

BIBL. PROF.

Opari:

Maite: bion aur, il ta bizien, oroiz.

BIOTZ-BEGIETAN zatzaidate sortu:
biotzeanago batzuek; besteak
betsein-betseñotan... Biotz-gabe ta itsu,
nork, izan ere, bil olerti-loreak?...

EN EL CORAZÓN Y EN LOS OJOS

habeisme nacido: unas muy en el
corazón; otras muy en los ojos... Sin
corazón y ciego ¿podría alguien cortar
flores de poesía?

ITZAUREA

PRÓLOGO

IRAKURLE:

Labur adierazi nai nizuke, liburu oni dagokionez, emengo olerki guzien iritzia. Olerkari edo diralako gizasemeetaz luze mintzatzea, olako oriek laiño legunez estaltzea, askori eŕez bezain neke zait neri beintzat. Erabateko gauzak ondo esatea, batez ere yakintza-arauz esatea, nornairen mende ez dago; baiña nolabaiteko gauzak izyarioka esatea, nork ez dezake?

Olerki gauz oetan, bakoizka ta zeazkiro gauzak adieraztea da beaŕenik eta zailenik. Beraz, saŕera-itzok alper ez izatekotan, asi nadin olerki bakoitzaren iritzia ondozka azaltzen.

Onela diote nik olerki bakoitzari ezaŕi nition oarkizunak:

AL LECTOR

Quisiera, lector, darte a conocer brevemente, cual compete a la calidad de este libro, mi juicio acerca de todas las poesías que contiene. Hablar largo y tendido acerca de esos individuos que llaman poetas, envolverlos en halagadora nube, sería para mí tan difícil cuan facil suele ser para muchos. El decir generalidades bien dichas, sobre todo filosóficamente dichas, no está al alcance de cualquiera; pero ¿quién es el que no puede expresar con profusión de palabras ciertas generalidades?

Lo más preciso y lo más difícil al mismo tiempo en estas cosas de poesía, es descender al dato particular y al pormenor minucioso. Según esto, para que estas palabras de prólogo no resulten ociosas, co-

Yaun eŕukioŕa — *Erderatik itzulia, dio berak. Gogai edeŕa du erderazko amalauko onek, baiña euskal-belaŕiendako gogor -antxa dirudit.*

Oia — *Yatoŕa, gauzak berak dakaŕena. Egi-ziŕara sartzen du barnean. Ba du gautaŕen aurka ziri zoŕotza:*

Ai nolako zoroak
gauez kalerik kale
ibil oi diranak!
Arkiko âl-dituzte
asun miñez yosirik
iñoiz beren oiak!

Mendi-gaña — *Aski polita. Olerkari on batek bere dunik uka ez lezaken adiñakoa; baiña liburu onek olerki aulik ba lu, nere ustez aulena.*

Zeru-azpia — *Xoragaŕia. Prantzesetik mamia dun aŕen, euskal-axal goxoa du.*

Aldakeri — *Idurimen yostanaia ta adi-*

mienzo a exponer el juicio de cada poesía por su orden.

Las observaciones que tengo puestas al pie de cada una son como siguen:

Dios de piedad!—*Traducida del español, como dice el mismo autor. Contiene un hermoso pensamiento éste que en castellano es soneto, pero se me hace un tanto duro para el oído vasco.*

La cama.—*Natural, brota espontáneamente del asunto. Causa en el ánimo gran impresión de realidad. Encierra una punzada satírica contra los nocherniegos:*

> «Valientes majaderos esos que de noche van recorriendo calles! Asi den cualquier dia en una cama llena de picantes ortigas».

Cumbre de montaña.—*Bastante bonita. No es como para que un buen poeta se desdeñe de hacerla suya; pero, si este libro tuviera alguna poesía mediana, esta lo sería a mi juicio.*

men zailua au egīleak. Olerki au bulkoz yoria ta gizon oartuarena da.

Xabiertxo'ren eriotza —*Bikain bikaiña. Aita siñiste berodunak, semetxo yaioberia garai artan il zaiolarik,* **yaiotza***'taldeari eratxikitzen dio:*

(Ataritik)— Etxeko-andre ona
kantatzerik nai?
Belen-zaleak gera,
sari-ustez beteak
zure zai...
—Biyoaz!—Ez maitea,
begira zaien...
Gurea iñoiz, azita,
oiek bezela ibiltze'
âl uken!

(Ataritik)— Etxeko-andre ona,
abesterik nai?
Gabon-zaleak gera,
ezin-etsiz beteak
zure zai.
—Zuzen diok. Aur onak
onetsi bitza!
Sartu, mutil, ederok,

El revés del Cielo.—*Encantadora. A pesar de que la idea está tomada del francés, según declara el autor, lleva vestido de sabor vasco.*

Veleidad. — *Imaginación juguetona y ágil ingenio demuestra el autor. Esta poesía es muy nutrida en ideas y digna de un gran observador.*

Muerte de Xabiertxo.—*Excelente. Un padre de profundas creencias agrega a la comparsa de niños* nacimienteros *su recién nacido y muerto en aquella fecha.*

«*(Desde el zaguán)*. Oh, buena «etxekoandre»: nos dejarás cantar?... Somos «beleneros» que, llenos de la esperanza de tu aguinaldo, te aguardamos».

«*(Ella)*—Váyanse!»

«*(El)*—No, querida... Míralos: igual que ellos anduviera el nuestro algún dia, una vez crecido!

seaska-alderaturik
yaiotza.
Sartu, ta yo beldurik
gabe. Gaxoa
lotan dezute, bañan
otsak astindu-gaitza
du loa.
Yo, bai, gaur baita Aur ona
yaiotzekoa!
Yaiki, biotz autsia,
pozezko yaia baituk
gaurkoa.

Au idatzi digunak ba du biotzondo.

Neskatx urdin-yantzia — *Goxoa, eŕexa, ugaria, zailua, laisteŕa.*

Bultzi-leiotik — *Ziŕara ematen du egiaren egiz. Gaiari dagokion bezain zailua ta laisteŕa da.*

Paris'ko txolaŕea — *Oartua ta ziŕarakoŕa ageri zaigu ontan ere. Izkuntza mendean du, euskeraz iñork ba. Edeŕaren susmo bizi bizia du. Zenbait leŕo erakus-*

«*(Desde el zaguán)*. Oh, buena «etxeko-andre»: cantamos?. . Somos «nochebueneros» que, sin perder nuestra esperanza, te aguardamos».

«—Dices bien. Que el buen Niño los bendiga! Entrad, muchachos hermosos, y a la cuna acercad vuestro «nacimiento»..'

«Entrad, y tocad sin temor: el pobrecito duerme, pero su sueño es de los que difícilmente sacudirá el ruido».

«Tocad, oh, sí, que hoy ha de nacer el buen Niño! Y tú levántate, roto corazón, que es fiesta de júbilo la de hoy!

El que esto ha escrito revela vena de lírico.

La doncella vestida de azul.—*Sabrosa, fácil, nutrida, ágil, rápida.*

Desde el tren en marcha.—*Es de las que impresionan por su verismo. Es ágil y rápida, coincidiendo con la materia.*

Gorrión parisién.—*Se nos muestra observador e impresionista igualmente en*

buruz aldatu nai ba nitu, guzia alda nezake.

Otartxo utsa — *Selgas'en* **La cuna vacía** *gogora dakar idazpuru onek, baina ez olerkiak. Meaxka da, ez ordea belaxka. Beti dugu gizaki ta beti euskotar gure Lizardi.*

Agur! — *Buruzkoegia dirudit. Ba ditu olako beste zenbait ere. Biotzaldiari noizpenka indarra ken lezaio.*

Biotzean min dut — *Bere aldikoa da. Emen agertzen ditu doairik garaienak batean. Guzi guzia alda genezake, baiñan ikus lefo ok:*

Ol bat yaso ta ikusi
dut musu ximela:
parre-antxa, bizirik
ba lirau bezela:
(Ots, ots,
ler adi, biotz).

ésta. Domina el lenguaje, si alguien en vasco. Tiene muy viva impresión de lo bello. De querer copiar algunos versos como ejemplo, tendría que copiarla toda.

El cestillo vacío.—*Por el título recuerda* **La cuna vacía,** *de Selgas, pero no por la poesía. Ella es delicada, pero no blanducha. Nuestro Lizardi siempre se nos muestra varonil y vasco.*

Adiós!—*Me resulta un tanto en exceso intelectual. Tiene algunas otras que hacen la misma impresión. Pudiera restar a veces fuerza a la parte afectiva.*

Duéleme el corazón.—*Admirable. Aquí demuestra unidas sus cualidades más sobresalientes. Pudiéramos trasladarla toda, pero véanse estos versos de muestra:*

«Levantaron una madera y vi tu rostro arrugado;
sonreía como si aún conservase vida...
(Resuéname y quiere estallarme el corazón...)

Ordun izar bat biztu
du nere gau beltzak,
begioi malko ixil bat
dardarka darite.
Noizbait itxaro-kabi
biur dan biotzak:
(Ots, ots,
yauzika, biotz).

Agur, oiuka dio,
gorputz ximur maite:
agur, amonatxoa.
Egun Aundirarte!

Zuaitz etzana — *Bikaina, oartze aundikoa. Zugatzaren bizitza yator yalkia dago. Au egin duna ez ote litzake antzerkigīle ere? Bizitzaren eta giza-biotzaren zizkuak ezagunak edo ditu.*

Urte-giroak:

I — **Bizia lo** — *Ugaria, oartzez yauntzia, berekia, egitsua. Ni bezelako baso-semeari ere ozki eragiten dio.*

Entonces mi noche oscura encendió una estrellita.
Derramóseme temblando, de los ojos, una callada lágrima. Y el corazón, convertido al fin en nido de esperanza:
(Resonando, resonando y saltando...)
Adiós! (dijo a gritos) Adiós, pobre cuerpecillo querido!
Adiós, abuela: hasta el Gran Dia!»

La traducción es pálida.

Arbol yacente.—*Superior, de mucha observación. Se narra con mucha propiedad la vida de un árbol. El que ha escrito esto ¿no valiera también para autor de teatro? Parece conocer los secretos más recónditos de la vida y del corazón humano.*

Paisaje de las estaciones: *I.*—**La vida duerme.**—*Ubérrima, repleta de observación, original, de mucha verdad. Aun al hijo de selva, como es el que esto escribe, le produce gran impresión.*

II — **Sagar lore** — *Auŕekoaren kidekoa, iduripenez aberatsa.*

III — **Baso itzal** — *Lenaren antzekoa. Tolosa'ko Olerti-yaiean sariztatua. Lau urtaroeri dagozkion olerki oetan, gizon umoa ta agoxuria agertzen da Lizardi.*

IV — **Ondar goŕi** — *Ausaz, oberena. Lau urtaroen zitua berekin du. Azken zatia biotz-ixuria du, sendoro ordea:*

Ta zuek nora, txoriok, saldoka
zoazte, iraduz uŕundu-bearka?
Adiskide Uŕetxindor il zaizute
ta aren ilkizunetara
—egoak ikara—
berandu-belduŕak al zaramate?
Oi, zein dan ituna
bêra-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!
Giroen argia galtzerakoan
lên-oiartzuna dut ozen gogoan
lru giro izanok, nik dei ta atozte,
nork zeren saria ekardazute:

II.—**Manzano en flor.**—*Hermana de la anterior, rica en imágenes.*

III.—**Bosque umbrío.**—*Parecida a la anterior. Premiada en el concurso poético de Tolosa. En estas poesías que tienen por objeto las cuatro estaciones se revela Lizardi hombre maduro y de exquisito gusto.*

IV.—**Playa bermeja.**—*Es tal vez la mejor. Encierra el fruto de las cuatro estaciones. El último fragmento es efusivo, pero de una efusión digna:*

«Y vosotros, pájaros, a dónde vais por bandos, con ese urgente impulso de alejamiento?... Es que ha muerto vuestro amigo Ruiseñor y, estremecidas las alas, os empuja el temor de llegar tarde a sus exequias?

Cuán triste es la inexorable necesidad de caducar!

Ojalá que el día no se trocase en noche!

Al extinguirse la luz de las estaciones, resuéname en el alma el eco de lo pasado. Vosotras, mis tres estaciones que fuisteis, volved por mí

batak itxaro, besteak berbizte;
irugaŕenak bizitza-indar bete.
Oro bear zaituzte ene biotzak,
lên-min baidamada neurtitz zâŕen otsak!

(Negu). . . Ikus bezat, Yauna, bein ta beŕiro.
otalore eziñegona...

(Udabeŕi). Bekusat sagasti gazte elurgiro,
udalen sort-oge dana.
Ikus bitzat arako irusta-saiīak
eskuan ditutela ardo-txanbiīak.
Entzun bezat iñoizko olerkaria
zelaiean baitzun lur-yauregia...

(Uda) . . . . Yainko-muño-gañetara baño lên
(edeŕa baita bizia!)
uŕezko itsaso bebilt urduria
Itzal dudala laguntzaiīe lerden.

(Udazken) Ta udazken-atsaŕeko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko betean!

Aŕigaŕia da zati au. Nik ezagutzen dudan lirikurik aundienaren zatirik edeŕenari batere ez dio zoŕik.

Eusko-bidaztiarena — *Izkuntza pinpirina, aundikitaŕa, zarpazu esan dioten*

llamadas, trayéndome cada cual vuestro presente: la una esperanza, la otra resurrección; la tercera, plenitud del vivir. De todas vosotras necesita el corazón, pues la música de mis antiguos versos me causa nostalgia de lo pasado.

(Invierno...) Haced, Señor, que una y otra vez vuelva aún a ver la flor impaciente del argomal...

(Primavera...) Y el joven manzanal como nevado, cuna de la primavera. Y aquellos tréboles que en las manos sostenían ánforas de vino. Vuelva a escuchar al poeta de marras, aquel que tenía en la pradera su térreo palacio. .

(Estío...) Antes que las cumbres gane de los divinos collados (es tan hermoso vivir!), sobre el áureo mar hirviente vuelva a navegar, llevando por gracil compañera a Sombra.

(Otoño...) Y en una mañana de principios de Otoño, despierte en la plenitud de Dios!»

Este es un trozo maravilloso. En nada cede al fragmento más bello del mejor lírico que conozco.

Canción del vasco viajero.—*Lenguaje elegante, aristocrático, adornado con las*

andere aberats batek aterako luken yantziz yantzia.

Asaba zâŕen baratza — *Ugari guziżkoa, besteak bezela.*

Izotz ondoko Iguzki *ta* **Gure mintzo** *azken-orduan egiñak ditu. Landuak noski, ez orde bear bezain legunduak. Itz beŕi ta aditz-yoku beŕi zenbaitek olerti-guriña kendu egiten diote. Egi egiz dio izkuntzari buruz:*

> Muinki dut estu nere eder
> besoetan, ta atsa yaurtiki,
> ta ura bai, egin zan aoan abesti.

Oetxek dituzu Lizardi'ren olerkieri ondozka ezaŕi nitien oarkizunak. Ez diet ezer kenduko, ez eratxikiko, irakuŕi-ala lenengo nere iritzia sendotu egiten baitute.

Erabat esateko: bulkoz, iduripenez, biotzondoz, agoxuriz izkuntzaz, oso guzizkoa dugu Lizardi. Euskera zar ezagunbageak dun muña atereaz, lirikarako aukerako-

galas que una dama acaudalada vistiera si la hubieran motejado de andrajosa.

Huerto de mis antepasados.—*Nutridísima como todas las demás.*

Sol sobre el hielo *y* **Habla nuestra** *las ha compuesto a última hora. Están bien trabajadas, pero les falta cierta suavidad. Algunos neologismos y neoflexismos o flexiones nuevas, les quitan unción poética.*

Con toda verdad dice hablando del idioma:

«Estreché apasionadamente en mis brazos a mi hermosa y lancé el aliento; y aquél, sí se hizo en mi boca canción».

Estas son las notas que yo tenía puestas una tras otra a las poesías de Lizardi. Ni quitaré ni añadiré nada, porque a medida que las he releído me han confirmado en la primera impresión.

Para decirlo en resumen: por sus ideas, imágenes, sentimiento, buen gusto, lengua-

ena dala garbi adierazi digu. Ainbeste esangai, ainbeste itz doi erabiltzen ditu; kirioz ta odolez yantzia da; euskera erpineraiño landu digu. Gurean orainarte ez du izan kiderik, nekez duke garaitzailerik.

E-tzazula eriosuar irakur emengo olerkirik, ahapaldia arnas batez asi ta buka; ez ta, agiz, leŕo osoka; leŕo erdika, laurdenka, itz bakoizka, gauzak eska dezan araura baiño. Mandoaren ur edateari baiño oīloarenari areago zagozkio. Edeŕak uki-bera ba zera, miazta ezazu astiro egīleak ain begiratuki bildu digun ezti gain gaineko au.

ORIXE.

je, Lizardi es un poeta de cuerpo entero. Extrayendo a nuestro viejo euskera el meollo que contiene, nos ha demostrado palpablemente que es tan apto como el idioma que más para la lírica.

A tantas ideas, tantas palabras justamente. Está dotado de nervio y de sangre; ha cultivado el euskera hasta el ápice. Entre nosotros no ha tenido aún semejante, y difícilmente tendrá quien le supere.

No leas precipitadamente ninguna de las poesías de este libro, leyendo de una alentada cada estrofa, ni comunmente por versos enteros, sino por hemistiquios, cuartos de verso, palabras aisladas, como lo exija cada cosa. Imita más bien el beber de la gallina que no el del mulo. Si eres sensible a lo bello, paladea pausadamente esta excelente miel que con tanto esmero ha fabricado el autor.

ORIXE.

BIOTZ-BEGIETAN

Yaun eŕukioŕa

(AMALAUKOA)

Gazteleratik itzulia

Txeŕen'ek lardaskatuzko loidi iguingaŕian
naŕas dut gogoa: zere iduriz sorturiko
anima garbia: zere eskuek yantziriko
soñeko zuria... Yauna, ogen egin nuan!

Lor-atsekabe laŕiak sortu zitun nigan
ogenak; miñago baita, eztizkoa baño.
Belduŕez ninduzun, Yauna, banekialako
tximist'–ortzirien yabe zu zeundela goian.

Ta, zure zigorbidezko oñaztaŕi laŕia
usterik, yo dizut begiz ortzia, izu-izuan...
Etzenidan, Yainko on oŕek, eguzkia yaurti!
Etzenidan uka ere beroŕen argia!
Eŕukizko izpia zeneriodan, artean,
ezin-agortuzko Maitasun-Ituŕi bizi!...

1917.

Dios de piedad!

(SONETO)

(Original del autor)

Pequé, Señor, pequé; arrastré en el cieno,
del alma que me diste la hermosura:
manché tu imagen en la charca impura
donde vertió el infierno su veneno.

Trajo el pecado, de zozobras lleno,
a mi alma su corte de amargura;
temí, porque sabía que en la altura
morabas Tú dominador del trueno.

Y, esperando tu rayo formidable,
volví los ojos con espanto arriba;
seguía el sol su vía, imperturbable,
y el cielo azul su luz me regalaba...
Luz de piedad aún sobre mí manaba
de Amor la Fuente inextinguihle y viva!

1916.

Oia

Neke-sendalaria,
buru-argitzalea,
lanaren saria...
Amestegi guria,
naigabien azkaia,
nagien nausia.

Bitez agur nereak,
apalonduon beintzat,
guztiak zuretzat.
Ta «aita-gure» bat ere
biyoa, zu asmatu
zinduanarentzat.

Baña... Lasatu nadin
orain, «aita-gure»'ka
eraso baño lên,
yaun zintzo oŕen baimenaz,
mordoka datozkidan
neurtitzok esaten...

Apaldu det oparo.
Betazalok, otoika,
eskatzen zaudate.
Aurean zu, zabalik,
eluŕa ainbat zuria,
begiok zakuste.

La cama

Médico del cansancio, iluminadora del entendimiento, premio al trabajo... Soñadero sabroso, lenitivo de penas, dueña de los perezosos.

Sean mis elogios – por esta nocturna sobremesa, al menos – todos para tí. Y vaya también un «padrenuestro» en sufragio de tu inventor.

Pero, no... Desahógueme ahora, antes que la emprenda con los «padre-nuestros». Previa la venia de ese honrado señor, dé suelta a tanto verso como, arracimado, me viene a la boca.

Héme aquí, cenado opíparamente. Los párpados, cama mía, te añoran suplicantes... Ante mis ojos muéstraste abierta, blanca como la nieve.

Sartu ditzadan lênen
estalkiok azpitik,
dagokion neuŕiz;
oñik irten eztaidan
gaberdian – oi baitu! –
lotsagabekeriz.

Apatx, orain!... Biyoaz
oñetakuok gora,
abea yo arte:
nere pozaren beŕi
auzo goi ta bêkoak
ikasi bezate!

Txamaŕa kendu, bota
galtzok ere: ez atseden...
Oŕenbeste neke!...
Zûŕagoak izanak
dituk ene guraso
Adan eta Ebe!...

Noizbait! Gerturik nago.
«Aitaren» egin, eta
yo dezadan murkil.
Bat, bi, iru, lau..., aguro!,
negu-gauaren otzak
ez nazan bertan il.

Comencemos afirmando estas mantas por bajo del colchón en la prudente medida; no sea que luego, a media noche, se me salga desvergonzadamente, según suele, alguno de los pies.

¡Ajajá!... Sentémonos ahora. Vuelen por el aire mis zapatos, hasta dar en el techo... Que sepan de este gozo mis vecinos: los de arriba y los de abajo.

¡Ahí va la americana! ¡Ahí, los pantalones! ¿Quién dijo descanso? ¡Qué fatigas! ¡A fe que tenían más juicio nuestros padres Adán y Eva!

Mas ¡por fin! Héme presto. Zambullámonos, después de santiguados. A la una, a las dos, a las tres..., pronto!, antes que me acabe el frío de esta noche invernal!

Oŕa baŕuan, yaunok,
maindire leun artean
bilduta, buru-oin.
Saŕerako otz-ikara,
bañan, samurtu arte,
aŕen, pixkat itxoin.

Oraintxe, ba, mutuŕa
zerbait atera daiket,
beŕiketa-yaŕai.
Zu goratzen, maitea,
logurak autsi arte
ez dut ixildu nai.

Ai, nolako zoroak
gauez kalerik-kale
ibil oi-diranak!
Arkiko âl-dituzte
asun miñez beterik
iñoiz beren oiak!...

Atean aize latza
dabil, aseŕe... Noski!:
oirik ezpaitauka.,.
Leioan txingoŕ-otsa
da, neri loa, nonbait,
galerazi-biĺa.

Héme aquí ya, señores, en suaves sábanas envuelto de la cabeza a los pies. Por favor, aguárdense un poquitín, a que haya vencido este escalofrío de la entrada.

Ahora, sí... Puedo ya asomarme un poco y continuar la conversación. En ensalzarte, querida mía, no ceje yo mientras el sueño no me rinda.

¡Valientes majaderos, esos que de noche van corriendo calles! ¡Así den cualquier día en una cama llena de picantes ortigas!

Fuera, el inclemente viento paséase de mal humor... Claro!, como que no tiene cama! En la ventana suena el granizo, pensando por lo visto estorbarme el sueño...

Lan gaitza, gaitzik ba-da.
Ateko giro txaŕa
lotarako onena;
seaska ustu genduan
aur samuŕ-azitxuon
lo-lo biguñena.

Biaŕ?... Gogapen txaŕok
uŕun! Egun banari
gau bat daŕaikio
egiñaz atsartzeko,
ez eginkizunaŕen,
orde, kezkatzeko.

Ta .., irakurle maitea,
labuŕerako oraintxe
beŕiketan nuzu...
Begiak itxi zaizkit,
burutzar au moteldu...,
arnasa... ba... kan... du.....

..... Ames dagit, basoan
il nauela, paŕeaz,
maitagaŕi batek,
ta, gozorik, iĪeta
abesten didatela
beŕeun miĪa lorek.....

¡En mal empeño se ha metido! Cuanto peor tiempo fuera, mejor para dormir... No hay canción de cuna semejante para los niños creciditos que ha tiempo la abandonamos.

¿Mañana?... ¡Quita allá, mal pensamiento! A cada día síguele una noche para que se descanse de lo hecho; no para que nos inquietemos pensando en lo por hacer.

Pero..., caro lector..., figúraseme que tienes ya conversación para poco... Es que se me cierran los ojos, la cabezota se me entontece, el respirar... re – tár – da – se – me. . . . .

. . . . . Y sueño... que en el bosque un hada matóme con su risa, y que doscientas mil flores cántanme dulce funeral...

LOIOLA
E. L.

..... Ames dagit nautela
tximiŕitek eortzi
abaraska baten,
ta iĺobia, lasaki
ta ixilka, ari naizela
paŕa-paŕa yaten...

..... Ames... Baña, ¿zer dantzut?
Irakurle guztiok
zuŕungaka lorik?
Nere neurtitzok oŕein
lo-erazle bizkoŕak
uste ez nun ziranik!

Beraz, gabon, gazteok...
Baña... nere buru au,
yas...! nola burutu?...
Oi-asmatzaĺearen
onez agindutako
«Aita-gurea» âztu!

Gizagaxoa..., noski,
on-utsa bide-zanez,
zeruan âl-dago!
Nere «aita-gurien»
beaŕik, beraz, ez du,
alegia, izango.

. . . . . Y sueño que las mariposas me enterraron en un panal de miel, y que yo, con mucho desahogo y disimulo, estoy engullendo mi propio sepulcro...

. . . . . Y sueño... Pero, ¡eh!, ¿qué escucho?... ¡Todos mis lectores roncan profundamente!... Nunca en mis versos sospeché tan eficaz narcótico

Así, pues..., ¡adiós, buena gente!... Pero... ¡recontra!, ¡qué cabeza esta mía! ¡Olvidábaseme el «padrenuestro» que prometí en sufragio del inventor de la cama!...

Bien que... es de esperar que el pobrecillo..., con lo bendito que debía de ser, goce ya de la gloria. En cuyo caso, ninguna falta le hacen mis «padrenuestros».

Gauzok ala dirala,
laga dezaket «aita-
gurea» biarko...
Atean euri-otsa...,
aize-zotin luzeak.....
Agur... ¡Da... gi... dan lo... o... o.....

1919



Dejémoslo, pues, para mañana... Fuera resuena la lluvia. Y los largos gemidos del viento... Vaya... Adiós... Dur – maaa – mooos.....



Mendi-gaña

Maite ditut galuŕak
argiak ez beste...
Ai, egaztia ba'nintz,
gañik-gain nenbilke!

Oi, udabeŕi-goizez
mendiaren galuŕa!...
Oi, aren ametsezko
zorakortasuna!...
Zein ezkutuzko indaŕez,
zein atseden-egaŕiz,
zein gorago-yoranez
narakark igana?...

Egiz, maitagaŕiak
dituk ire basotan?...
egiz duk arnaskai bat
ezilkortzen duna?...
egiz, eguzkiaren
lêndabiziko muñaz
sortzen duk zorunaren
lore ezezaguna?...

Cumbre de montaña

Amo a las cumbres más que las ama la luz. Oh!, si yo fuese pájaro, siempre volara de cima en cima!

Cumbre de la montaña en mañana de primavera... ¡Qué embriaguez produces, de ensueño! ¡Con qué misteriosa fuerza, con qué sed de descanso, con qué ansia de más arriba me atraes hacia tí!

¿Es verdad que tienes hadas en tus bosques?... ¿Y que posees un aire que hace no morir?... ¿Y que al primer beso del sol produces la flor ignorada de la felicidad?...

Nik amestan bezela
ote-aiz, mendi-gaña?
Goi-yauregiko mala?
Gotzonen urbilgo?...
Egiz, Yaungoikoaren
esku ta aunditasuna
ote-dituk or goitik
sumatzen bertago?...

Ire goi urdiñaren
uŕe lanotsupean
bêko txikerkerion
azkaia ba'legok,
aŕen, aiskide uŕuna,
otoi, mendi maitea,
negar-aran beltz oni
kendu nazakiok!

Maite ditut galuŕak
argiak ez beste...
Ai, egaztia ba'nintz,
gañik-gain nenbilke!

1920.

¿En verdad eres tal, oh cumbre de la montaña, como yo te sueño? ¿Escalón del celeste alcazar, cercanía de los ángeles? ¿En verdad desde tu altura se sienten más próximos el poder y la grandeza de Dios?...

Sí, bajo el oro brumoso de tu cumbre azul, por ventura existe algo que haga olvidar estas miserias de acá abajo, oh, amigo lejano, monte querido, por piedad arráncame a este oscuro valle de llanto!...

Amo a las cumbres más que la luz las ama. ¡Oh, si yo fuese pájaro, siempre volaría de cima en cima!

Zeru-azpia

Pantzeratik itzulia, mamiz.
(Besse de L.)

I

Esan amatxo: aingerutxoak
egoa uŕezko ba-dute,
zeru urdiñean uŕe-dirdira
nik nola ikusten ez-ote?...

Paŕe gozo bat amak eginda,
auŕari ala diotsa:
– Bêtik dakusgun urdiña zeru-
-azpia baizik ezpaita.

– Ene, ba!, azpia – mutilak dio –
oŕein edeŕa dalarik,
nolakoxea ote-da, gero,
zerua goi-alderditik!..

II

Gautu zanean, ortzi zabala
bare-ozkarbi zegoen,
ta izar argien zilar-begiak
auŕari par-zegioten.

El revés del cielo

Traducción libre del francés.
(Besse de L.)

I

Dime, madrecita: si es verdad que los ángeles tienen de oro las alas, ¿cómo es que yo no las veo brillar en el azul del cielo?

La madre, sonriendo dulcemente, contestó al niño así: – Es porque ese azul que vemos desde aquí no es sino el revés del cielo.

– ¡Ah!, pues entonces – dijo el niño – si el revés es tan hermoso, ¿qué será el cielo por el otro lado?

II

Llegada la noche, el firmamento se mostraba plácido y sereno, y los ojos argénteos de las estrellas sonreían al infante.

Aur-kezka oro amets eztitsu
biur oi-diran garaian,
auŕak, amaren biotz-alboan,
beŕiro onela ziotsan:

– Zerua azpitik oŕein edeŕa
dalarik, amatxo maite,
ai nere poza, zeru-gainkia
ikustera âl-ba-ningoke!...

III

Auŕaren naia zeruratu zan,
(alatsu otoitz garbia),
ta aingerutxoak eska zioten
Yaunari lagun beŕia.

Eguzkiaren uŕezko yaia
beŕiro izeki zaneko,
begia itxirik zeukan aurtxoak
zeru-azpia ikusteko.

Seaska-aldean ama gaxoak
otoi-zegian, negaŕez,
semea igoa baitzun, zeruko
goikia ikusi-beaŕez.

1925

Y a la hora en que las inquietudes infantiles ceden su lugar a sueños dulcísimos, el niño, muy junto al corazón de su madre, decíale nuevamente:

—Madre, ese cielo que es por debajo tan hermoso, ¡cómo me gustaría subir a verlo por encima!

III

El deseo del niño ascendió a lo alto, como las oraciones puras, y los angelitos pidieron a Dios un compañero nuevo.

Y, cuando el sol hubo otra vez encendido su áurea fiesta, el niño tenía cerrados los ojos al reverso del cielo.

Junto a la cuna, la pobre madre oraba llorando, porque habíasele escapado el hijo, en su empeño de conocer el anverso del cielo.

Traducción literal de la poesía original

EL REVÉS DEL CIELO

I

–¿Por qué–dice un niño–no veo relucir en el cielo las alas de oro de los ángeles radiantes?...

La madre respondió, con una dulce sonrisa;–Hijo mío, lo que tú ves no es sino el revés de los cielos.

Y el niño exclamó, elevando su cándida mirada hacia las divinas bóvedas del palacio eterno:

–Pues que el revés del cielo, es ¡oh! madre, tan límpido, ¡qué bello debe de ser el otro lado del cielo!

II

Cuando sobre el vasto horizonte la noche hubo llegado, a la hora en que todo pesar se adormece en un ensueño, la mirada del niño dirigióse al firmamento y contempló el azul, ornado de perlas de oro.

Las estrellas formaban en el cielo una corona, y el niño murmuraba, junto al seno materno: – Pues que el revés del cielo rutila tan dulcemente, ¡qué diera yo por ver el otro lado del cielo!

III

El deseo angelical de aquel alma infantil subió como el incienso a la celestial morada. Y cuando el sol doró la colina, ya el niño no estaba allí para contemplar el día.

Junto a una cuna, una mujer lloraba y oraba, porque su angel había huído hacia el mundo inmortal y, franqueando la barrera del revés de los cielos, contemplaba el otro lado.

* * *

Aldakeri

Maitezko ipui minkatza

I

Leioa. Kaiola, bertan.
Urezko ariz lotuta, pozik, txoria:
ez margo, ez eztaria:
ederik gaxoa nekez ezertan...

Itzalgari matsondoa.
Ikusgai, beriz, ibai, mendi, baso, zelai,
ta udaren urea non-nai...
Bazun zerk aska-zaletu gogoa!

Maitiar zitun txolare
biuriak, maiz; iñarak aiskide, beriz;
ta iraka yoan-etoriz,
iluntzeak ditun sorbeltzak ere.

Txolareak diotsana:
«Oi, ene lagun gaxoa! Lotu-gaberik,
»eure mai gizen bera nik!...
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»

Veleidad

Cuento de amor, amargo

I

Una ventana, y en la ventana una jaula. Por áureo alambre aprisionado, feliz, en la jaula, un pájaro. Ni por el color, ni por la voz descuella; dudo que el pobre sea agraciado en nada.

Tiene la sombra de una rama de vid, y ante la vista un paisaje de ríos, montes, selvas, prados...; y el oro del estío por doquier. ¡Había allí, por cierto, de qué aficionarse a la libertad!

Eran con frecuencia comensales suyos los traviesos gorriones; tenía la amistad de las golondrinas, y aun la de esos vencejos que, en el anochecer, van y vuelven girando.

Y decíale el gorrión:—¡Ah, desdichado amigo mío! Yo no sufro prisión, y gozo sin embargo de tu mismísima regalada mesa... ¡Cuán amable es la libertad!

Iñarak: «Ene laguna,
»eŕukaŕi aiz; ezpaituk iñon kabirik
»ume laztanek beterik!...
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»

Sorbeltzak: «Ez duk biguna
»ire zoria; begitu nazak, emen-or,
»laister bai zabalak mozkor!...
»Oi, zein maite dudan askatasuna!...»

Txoriak: «Ez zuen ele
»maitekoŕak, ez emendiko ikuskizunok...,
»iñork ez ezerk, lagunok,
»ezin naute egiñen askatu-zale».

* * *

Leiora, bat-batean, nor?...
Edeŕ-ametsik eziñena, aragituta!
Neskatxak: «Ega», dio, ta,
kaiola zabalduz: «maiteñoa, ator...»

Aren begikun gozoa!...
Burni-tartetik giltzape beltzean sartzen.
askatasun-egunaren
uŕatzea ez dan bezelakoa...

Y la golondrina: – Compañero, a piedad me mueves, *tú que no tienes un nido lleno de entrañables* pequeños. ¡Oh, no sabes cuán hermosa es la libertad!

Y el vencejo: – Dura es tu suerte. Contémplame a mí, en perpetuo vuelo, ebrio de movimiento y de espacio... ¡Ah, cuán apasionadamente amo la libertad!

Y respondía el pájaro: – Ni vuestras cariñosas instancias, ni esa hermosura que mi vista alcanza...; nadie ni nada, amigos míos, será poderoso a hacerme añorar la libertad.

* * *

¿Quién de pronto viene a la ventana?... El más inverosímil ensueño de belleza, hecho carne... Y dice la muchacha: – Vuela. – Y, abriendo la jaula: – Ven, queridito...

¡Qué dulce era su mirada!... No lo es más la aurora del día de la libertad, al penetrar por entre las rejas de la lóbrega prisión...

Txoriaren poz-ikara!...
Ur-ontzitxoan murgildu ta astinduz-gero,
maitetasunaŕen ero,
badoa dei-dion ao goŕira.

«Ega adi, maiteñoa, arin,
»neri biraka; eskuaz bainegok erne...
»Laisteŕago! Oŕelaxe! Ene!
»Ukaldia yaurti, ta atzitu ezin!»

«Gaiztoa! Geldirik! Ator!...
»Nerea aiz noizbait! Laztan bat: orain bestea;
»yan nai aut, ene maitea!...
»Oŕa, gaurkoz, neri beŕeun musu zor...»

* * *

Leio-gañeko iñarari,
onâ zein oar zioskan, ezin obeak,
txolaŕe lotsagabeak,
biurki eragiñik begiari:

«Ikus dun ori, laguna?...
»Ez din, oŕatik, oŕetxek yaso makala,
»edeŕez ain motza dala...»
(Zozoak beleari..., dakiguna).

Tembló de placer el pájaro. Zambúllese en el bebedero, sacúdese el agua, y vuela, loco de amor, hacia la roja boca que le ha llamado.

– Vuela, mi amorcito; vuela ligero en derredor de mí, que mi mano está presta. Más aprisa. ¡Así, así!... ¡Ay! Te tiro manotadas y no puedo cogerte... ¡Malo! ¿Pararás? Ven. ¡Ah, por fin caíste! Anda, toma un beso; anda, toma otro... ¡Quisiera comerte, cariño!... Pero, mira; ya me debes doscientos...

* * *

Y hé aquí las apreciaciones, sin desperdicio, que el desvergonzado del gorrión, guiñando maliciosamente un ojo, dirigía a la golondrina, moradora arriba de la ventana:

– ¿Has visto eso, compañera?... ¡Pues digo si tiene aceptación el amigo!... Y eso que, de hermosura..., bien poco ha qué mostrar... (Decía el tordo al cuervo..., etcétera) (1).

(1) La reticencia refiérese al refrán vasco «Zozoak beleari *ipurbeltz*». (Dijo el mirlo al cuervo *culinegro)*. Equivalente a:

«Dijo la sartén a la caldera:
quita allá culinegra».

II

Udâ yoan da. Marduldu zaizka mordoak
matsondoari. Beñola,
– egari mozkoŕa – yo du kaiola
gazteenik ildako ostoak.

Agur, iñarok... Ai, zuen kabi goxoa
beŕiz beterik daneko!...
Ai, zeñen luze zuen uŕeneko
maitaldiaren beroa!...

Egunak iges, ta goiz bat, zuriz yantzia,
dar-dar yaio zan... Negua.
Zertan ago, gogo miñak puztua,
zer dala-ta itun, txoria?...

Oar, baña, non datoŕen ire maitea!
Ene!... zerk, ordea, zimur
eragin ezpañei?... Ene!... nork lapur
begien iŕipaŕea?...

Leio-kaiolak zabaldu ditu, bat-bana...
Sartu du Negua'k sudur
ozpeldu-zoŕotza. Txoria, beldur,
ega da maiteagana...

II

Ha pasado el estío. Maduraron los racimos de la cepa. Un día – como un ebrio volador – tocó la jaula una de las primeras hojas que morían.

Adiós, golondrinas... ¿Cuándo volveré a ver poblado vuestro nido muelle? ¡Ah, qué lejos se presiente el calor de otra amorada vuestra!

Pasaron más y más días, y, por fin, trémula, nació una mañana vestida de blanco... Invierno... ¿Qué haces tú ahí, pájaro, esponjado de tristeza y sombrío?

Mas..., repara allá: es tu amada, que viene... Pero..., ¡ay! ¿qué tendrá, que así frunce los labios?... ¿Quién, de los ojos hurtóle el sonreir?...

Abrió, una por una, la ventana y la jaula... El invierno asomó al punto, adentro, su nariz afilada, hecha un sabañón... El pájaro, tímidamente, rompió a volar hacia su amada.

BIBL. PROF.
STA. M.ª DE VERUELA

Ai, aren esku, laztankor igaz izana.
Lore-oŕia arantz biur!...
Lêngoa ditekek, zakarki edur-
-pera egotzi auena?

Negargaŕia! Leio-ostean itzalia
bizitz-bizitza uan gaŕa!...
Ire eguzkiaren iłunabaŕa!...
Betiko il argi guztia!...

Ega, bai, ega! Oro zegok otz, bai bakar;
oro, bai, ene!, zuria!...
Non yana, ta aterperik non, txoria,
biła aŕen adaŕik-adar?...

* * *

Gose-nekeak auldurik, elur-gañean
etzin da; ta arin, geldiak
deituta, gogapen negargaŕiak
egotzi zaizka taldean.

Iñoiz ikusi dezute tximiŕitarik,
iltzeko yausitakoan,
xomoŕoek yana nola dagoan,
azkenak egin eziñik?

¡Ay, manos tuyas, antaño acariciadoras! ¡Que los pétalos puedan volverse espinas! ¿Son aquellas mismas, estas de ahora, que, brutalmente, han expulsado al pájaro, bajo la nevada que cae?

¡Desdichado! Tras la ventana viste apagarse la llama qne era vida de tu vida. Viste el crepúsculo de tu sol. Para tí, por siempre, la luz ha muerto.

Puedes volar sin descanso... Todo lo encontrarás solitario y helado: todo blanco... ¿Dónde has de hallar qué comer, dónde refugio, por más que los busques de rama en rama?

* * *

Abatiéronlo la fatiga y el hambre, y cayó sobre la tierra. Rápidamente, por la inacción convocados, embístenle multitud de dolorosos pensamientos.

¿Acaso no habéis visto, cuando una mariposa cae para morir; no la habéis visto que, a dentelladas, le atacan los insectos de la tierra, y yace sin poder acabar su vida?

Bero gozoa! Yantoki alez betea!
Laztan eztiak goizean!...
Agur, agur!... Oi! Eriotz-aurean,
etsipenaren nekea!

Iñoiz kabirik egin-gabeko gaxoa!
Eluŕetan, or, txoria,
epelak ogetuta, ire kabia...
lênen bai azkenengoa!...

* * *

Elur ta elur: eluŕa, eten-gabean:
iluntze beldurgaŕia!...
Astindu nai... Ega nai... Ai, txoria!,
eluŕa beti soñean!

* * *

Aleak une, diardu, nagiz, Aldia'k
yalkitzen artaburua...
Agurea baita, dar-dar eskua,
logura, beŕiz, begiak...

Il nai, ezin il... Gauaren azkengabea!

* * *

Eguna?... Bai, nekezkoa;
ur-esnea baño motelagoa...
Eguna noizbait, ordea!

¡Oh, tibio calor! ¡Oh, comedero, bien provisto de miés! Y aquellas dulces caricias de todas las mañanas... ¡Adiós para siempre! ¡Ay, qué triste es la desesperación al acercarse la muerte!

Tú, pájaro, pobrecito pájaro; tú que jamás hiciste tu nido; hélo ahí, en la nieve labrado por el calor de tu cuerpo... Hélo ahí: ¡tu primero y último nido!

* * *

Nevó, nevó, nevó... ¡Qué espantoso oscurecer! Pretendía sacudirse... Intentaba volar... ¡Pobre pájaro! Siempre presa de la nieve...

* * *

Y Cronos desgranaba perezosamente su mazorca, cuyos granos son instantes... Viejo como es, temblábale la mano y caíansele de sueño los ojos.

¡Deseando morir, y sin poder abandonar la vida!... ¡Oh, noche interminable!

* * *

¿De día?... Sí. ¡Cuánto había tardado! Y más turbio era que el agualeche... Pero al fin: ¡era el día!...

Il-aúreko indar- -ondaŕak zuzpertu?... Beintzat,
txoria leioruntz doa,
mozkorki, – alatsu udazken-ostoa –
egun nekez yaioaz bat.

Mokoz bai egoz otoikor astindu ditu
leiarki lausoz beteak...
Ai, beñere ezpa'lu zorigabeak
begiaz lañoa uŕatu!

Margoz, bikaña; eztaŕiz, abeslaria;
bigunki, baŕu gozoan,
zataŕetsiaren kaiolatxoan,
lo dago beste txoria...

Eŕukaŕia! Bein eta beŕiz, alena!
Nondiko gezi zoŕotza
bat-batez eldu zaik egan, biotza
yosteko guztiz zuzena?...

* * *

Leio-aŕian yausi zan; lauso begiak,
zutiturik eŕotxoak:
beatzak biuŕi, zabal egoak,
aŕoturik egakiak...

1925.

¿Reanimólo la reacción que precede a la muerte?... Sea como fuere, hélo ahí volando como un ebrio – semejante a la hoja otoñal – a una con el tardío día, hacia la ventana.

Con el pico y con las alas golpea suplicante los empañados vidrios... ¡Ojalá tu mirada no hubiera logrado atravesar su nube!

En el confortable interior, dentro de la misma jaula del despreciado, otro pájaro dormía sosegadamente, magnífico de color, y de garganta sonora.

¡Desdichado! ¡Infeliz mil veces! ¿De dónde partió el dardo aquél, que volando vino a clavársele raudo y certero en el corazón?

* * *

Cayó en la piedra de la ventana, nublados los ojos, tiesas las patitas, retorcidos los dedos, abiertas las alas, hinchado el plumaje...

Xabiertxo'ren eriotza

(Nere lênengo Xabiertxo'ren eriotz-egunean: 1925'gko. Lotazilak 24'g.)

I

Gabon-egun-goizean
Yaun Aita pozik
yaiki, ta aingerutxoak
oŕa non bildu ditun,
esanik:

Poztu, ene txikiok,
gaur, aŕatsean,
aurtxorik edeŕena
yaiotzekoa baita
luŕean.

Apaindu, ta zoazte
guztiok bèra
beŕi ona zabalduz,
zuen Yaungoikotxoa
gurtzera.

Muerte de Xabiertxo

(En el día de la muerte de mi primer Xabier: 24 de Diciembre de 1925).

I

En la mañana de Nochebuena, habíase Dios Padre levantado muy contento, y, reuniendo a sus angelillos, díjoles:

– Alegraos, pequeños míos, que esta noche ha dè nacer en la Tierra el más hermoso de los niños.

Aseaos, y volad todos abajo publicando la buena nueva, a postraros ante vuestro pequeño Dios.

Zenbat zerate, baña?
Bat, bi, iru, amar,
ogei, eun, mila... Gutxi!
Yai ontako, geiago
nik bear!

Entzun: ega luŕeko
seasketara,
ta aur zoragaŕienak,
ene maiteok, bertan
aukera.

Masalean laztan bat,
eztiz betea:
eskutik ar, ta abia...;
oŕela ugalduz zuen
taldea.

Ta, lurbira guztia
egin-ondoren,
yaiez yantziz biotzok
bildu, iñulaŕerako,
Belen'en.

* * *

Zalaparta bizian,
txalo yo ta yo,
Yainko zâŕari oro
baranoan egatu
zaizkio.

Mas... ¿cuántos sois? Uno, dos, tres, diez, veinte, ciento, mil... ¡Pocos! Más me hacen falta para esta fiesta.

Escuchadme: volad a las cunas de la Tierra, y en ellas elegidme los niños más encantadores.

Un beso en la mejilla, lleno de dulzura: y, asiéndolos de la mano, partid, acrecentando vuestro enjambre de ese modo.

Y, luego que hayais rodeado toda la Tierra, vestidos de fiesta vuestros corazones, congregaos, para el anochecer, en Belén.

* * *

Con ruidosa algazara y aplaudiendo a más y mejor, todos revolotearon en torno del viejo Dios.

Ta, aruntz lagun-eginda
puska batean,
emen datoz beŕiro,
ega-iraulka pozaren
pozean.

* * *

Yaunaren baratzako
ituŕietan
murgildu, ta ari dira
beren buruon eder-
lanetan.

Gertu-ta-gero, uŕezko
txilibitoak
aoratu, ta abia
ziran, zabala aŕotuz
egoak.

Non dira?... Antxe, urdiñaren
sakonenean,
ezer ez duzu ikusten
argizko auts-irakin-
antzean?...

Noratsu?... Iñon ez. Oro
lèngoraturik,
begiak ez du yotzen
urdin baztergabea
besterik.

Y, luego de acompañarle a lo lejos una buena jornada, vedlos regresar, dando al vuelo volteretas, de puro contentos.

* * *

En las fuentes del huerto del Señor se han zambullido, y dan comienzo a la tarea de acicalarse.

Así que estuvieron prestos, lleváronse a los labios flautas de oro, y partieron, esponjando el espacio con las alas.

¿Dónde van?... Allá, del azul en lo más hondo, nada ves, semejante a un hervor de polvo de luz?

¿Hacia dónde?... Ya, nada. Todo volvió a su quietud, y la vista no huella sino el azul sin término.

II

Gabon-egun-goizean,
seaskatxoan,
Xabiertxo gaxoa
gaitzak ito-zorian
zegoan.

– Zer duk, eguzki oŕek,
gure edeŕena?
Nork min egin, esaidak,
biotz biren zatirik
maitena?...

Itxon! Ustez, arnasa
baretu zaio:
paŕe-antx gozo batek
ezpaintxoak argitu
dizkio...

– Iñoren itz emeak
entzuten ago,
geldi-geldirik eta
bular eztian baño
pozago?...

Ene! Beldur! Ez il, ez,
aŕen, txikia!
Ez yoan, gure poza,
ez, gure biziaren
argia!!

II

En la mañana de Nochebuena, estaba en su cuna el pobre Xabiertxo, y la enfermedad lo iba ahogando.

Oh, tú, más que nadie hermoso, sol nuestro, ¿qué tienes? ¿Quién te hizo mal, dime, a tí, lo más querido de dos corazones?

¡Espera! Diríase que el respirar se le ha aquietado... Una dulce sonrisa le ha iluminado los labios...

¿Es que escuchas de alguien tiernas palabras, quietecito y más a gusto que en el pecho sabroso?...

¡Ay de mí! ¡Siento miedo! ¡No te mueras, oh, nó, por piedad, pequeño! ¡No te nos vayas, gozo nuestro; nó, luz de nuestra vida!

Ene! Gure biotzon
erdibitzea!
Nekez arterañoan,
itotako negaŕa
lertzea!...

Ene! Amen begien
negar-obiak
ondoa yo-eziñak
egin ete-ditu Yaun
aundiak?...

Bular yoritik ez aut,
ene!, ikusiko
zalapartan edaten,
gosea aserik baituk
betiko!...

Eguzkiak inguma
bezin maitea;
ala, maiteminduak,
maite-ezpañek ukitu
-lorea!...

Igan ipiñitako
amesak, baña,
auskoŕak ete-ziran,
inguma ta loreak
ez aña?...

¡Oh! ¡Qué partirse nuestros corazones! ¡Qué reventar el hasta entonces a duras penas contenido llanto!

¿Por ventura el Señor poderoso hizo sin fondo en los ojos de las madres los pozos del llanto?

¡Ya, ay de mí, del pródigo pecho no te veré beber bulliciosamente; que tu hambre para siempre se ha saciado!

¡Oh, querido, como del sol las mariposas, o del enamorado la flor que la amada besó!

¿Eran, pues, frágiles, más que las mariposas y las flores, las ilusiones que puse en tí?...

III

– Berandu? – Bai, maitea;
iluntzea den...
Atsekabeak ez din
astiaren neurtzea
yakiten.

– Ixo... Nortzu ditezkek
atarikuok?...
Nor zetorkek, algaraz,
miñagotzera gure
malkuok?

* * *

(Ataritik).

Etxeko-andre ona:
kantatzerik nai?
yaiotzadunak gera,
begirunez beteak
zure zai...

* * *

– Nortzu dituk?... Esaiek
alde-egiteko!
– Goŕiz argitutako
yaiotzaz, dun sorta bat
mutiko...

III

(Ella). – ¿Es tarde?

(El). – Sí, querida: está anocheciendo... De medida del tiempo no sabe el dolor.

– ¡Calla! ¿Quién va en el zaguán? ¿Quién puede venir de fiesta, a hacer más amargas nuestras lágrimas?

* * *

(Desde el zaguán).

Oh, buena *etxeko-andre:* ¿quieres que cantemos?... Somos *nacimienteros*, que, llenos de respeto, te estamos aguardando.

* * *

(Ella). – ¿Quiénes son?.,. ¡Diles que se vayan!

(El). – Es un racimo de niños que traen un *nacimiento* iluminado de rojo.

(Ataritik)

Etxeko-andre ona:
kantatzerik nai?
Belen-zaleak gera,
sari-ustez beteak
zure zai...

* * *

– Biyoaz! – Ez, maitea;
begira zaien...
Gurea iñoiz, azita,
oiek bezela ibiltze'
âl-uken!

* * *

(Ataritik).

Etxeko-andre ona:
abesterik nai?
Gabon-zaleak gera,
ezin-etsiz beteak
zure zai...

* * *

– Zuzen diok. Aur Onak
onetsi bitza!
Sartu, mutil ederok,
seaska-alderaturik
yaiotza.

Sartu, ta yo, belduŕik
gabe. Gaxoa
lotan dezute, bañan
otsak astindu-gaitza
du loa...

(Desde el zaguán).

Oh, buena *etxeko-andre:* ¿nos dejarás cantar?... Somos *beleneros* que, llenos de la esperanza de tu aguinaldo, te aguardamos.

* * *

(Ella). – ¡Váyanse!

(El). – No, querida... Míralos: igual que ellos anduviera el nuestro, algún día, una vez crecido!

* * *

(Desde el zaguán)

Oh, buena *etxeko-andre:* ¿querrás que cantemos?... Somos *nochebueneros* que, sin poder perder nuestra esperanza, te aguardamos.

* * *

– Dices bien. ¡Que el Buen Niño los bendiga! Entrad, muchachos hermosos, y a la cuna acercad vuestro *nacimiento*...

Entrad, y tocad sin temor: el pobrecito duerme, pero su sueño es de los que difícilmente sacude el ruido.

Yo, bai, gaur baita Aur Ona
yaiotzekoa!
Yaiki, biotz autsia,
pozezko yaia baituk
gaurkoa!

Yaiki, gure maiteena
Belen'en baita,
ortzi izartuan zear
ego bigun aŕoek
bultzata!...

Oska baitago, uŕezko
txilibitoaz,
zeuen Gabon-abesti
berberok Belen'en
yo ta yoaz!

Yo, bai, maiteñoaren
oroiz, mutiłok.
Gurtu gatzaion Yainko
aurtxoari biziok
eta iłok...

* * *

Aintza goian Yaunari
askigabea;
ta, bere naia ontzat
etsitako lurtaŕoi...
pakea!

1926.

¡Tocad, oh, sí, que hoy ha de nacer el Buen Niño! ¡Y tú levántate, roto corazón, que es fiesta de júbilo la de hoy.

Levántate, que nuestro bienquerido está en Belén, llevado por blandas, esponjosas alas, a través del cielo estrellado.

Que él también tocando está sin tregua en su flauta de oro esas vuestras mismas canciones de Nochebuena.

Tocad, sí, chiquillos, en memoria de nuestro queridito... Al Dios niño adorémosle vivos y muertos.

* * *

Gloria sin término al Señor en la altura; y paz a los hombres que acataron su voluntad.

Neskatx urdin-yantzia

Udabeŕi, uste-ezik,
arki dut basoan.
Neskatxa da, ta urdiñez
yantzita ziyoan.
Urdiña yazkia, ta
begia areago:
alakorik itsaso
barean ez dago.
Begi eder-goseok,
ase zakidate!,
iñon ezpaiditake
edeŕik, au beste.
Mamia du nâsian
oretua, iñolaz,
Loreil-laño goiztar ta
maŕubi-odolaz.
Arbazta igaŕarena
bezin su zolia
Egun'ek biztu dio
yorik ilĕdia.

La doncella vestida de azul

Impensadamente, heme encontrado en el bosque a Primavera. Doncella es, y de azul iba vestida. Si azul el vestido, aún más azules los ojos: no le tiene semejante ni el mar cuando está sereno.

Ojos míos, hambrientos de belleza: ¡saciaos por fin!, que hermosa como esa no hay otra. Sus carnes han sido, sin duda, amasadas de niebla mañanera de Mayo, mezclada con sangre de fresa. Al tocar sus cabellos, Día enciende en ellos un más claro fuego que el de la ramilla seca.

Aren oñek ikutzen
ote dute luŕa?
Ezetz diot: ezpaita
malgutu belaŕa.

Biluzik zan basoa
negu-ondaŕean,
neskatx urdin yantzia
bertara danean.
Zebilela, ats epel bat,
usaiez yoria,
dama; ta adar beltzetan
erne da bizia.
Oŕiz-oŕi yazten da
basoa, gozoro...
Bakan-bakanka, lênen...
Saŕi-saŕi, gero.
Eguzki itzulbeŕiak,
(maitari goiztaŕak)
munkatu du basoa,
(munkatu senaŕak)...
Emazte ezkonbeŕia
dala uste basoa...
Aren dardar emea...
Aren par gozoa!

¿Pisan el suelo sus piés?... Diríase que nó, pues que la hierba no se doblega a su paso.

Desnudo el bosque estaba al morir el invierno, cuando entró la muchacha vestida de azul. A medida que pasaba, esparcía un tibio aliento, lleno de fragancias: y despertó la vida en las negras ramas.

Hoja por hoja vístese mansamente el bosque... Poquito a poco, al principio; luego, rápidamente. El sol recien vuelto – matinal amador – ha besado al bosque – beso de marido – . Porque semeja la selva recien casada esposa... Tal es su suave estremecerse; tal es su dulce sonreir.

Ustez, buru gañean
gaua dut, argia,
amaika izar urdiñen
dirdirak yosia...
Ustez, ur orlegiak
nituan oñean,
izaŕok ziralarik
islatzen urean...
Gezur amesgaŕia,
liĺurak sortua!
Goien urdiña nuan,
ostoak xêtua;
bêan, beŕiz, uŕezko
yarioz argiak
belaŕean oi-ditun
begibil zoliak.
Marmaŕa dabil goien,
ezin daikezuna
ots ezti dan igeŕi,
ala ixiltasuna,
Bat-batez, eun txoriek
eztaŕiak eten,
ta aberaski zabala
bitxiz yantzi zuten...

Hágome la ilusión de tener sobre mí una noche clara, llena del brillo de innúmeras azules estrellas; y a mis pies hay verdes aguas, en que aquéllas se reflejan... Pero es mentira de ensueño, mentira de fascinación. Lo que sobre mí tengo es el azul, desmenuzado entre las hojas; y, abajo, son los redondos inquietos ojos que la luz, en su áureo filtrarse, suele formar en la hierba.

Percíbese arriba un rumor, que nadie sabría asegurar si es música suavísima, o si no pasa de silencio. Y de pronto, cien pájaros rompen a gorjear, enjoyando espléndidamente el espacio.

Egun-eunez yantzia
beŕikusi-naiez,
bira ditut begiak,
bira, baña... ¡iñon ez!
Non da, non da sorgiña,
basoak maitea?
Begiaz dut, alpeŕik,
yo aren bidea.
Yoana zan... Yoana,
neri, biotzean,
kezka beldur-eztia
yosi-ondorean...
Maitetasun-azia:
ene udabeŕia:
neskatx-tankerakoa
ta urdiñez yantzia!...

1927.

Quise contemplar de nuevo a la vestida del luminoso lienzo, y a todas partes volví los ojos sin encontrarla. ¿Dónde estás, dónde, embrujadora, amada de los bosques?... Vuelvo a mirar el camino que llevó... En vano. No estaba ya: había desaparecido, dejándome en el corazón clavada una dulce temerosa inquietud...

Albores de amor... ¡Oh, primavera mía! .. Forma tienes de mujer, y vas de azul vestida...

Bultzi-Leiotik

Oi, lur, oi, lur!
Oi, ene lur nerea!...
oi, goiz eme,
paŕe gozoz ernea!...

Arto musker,
mendi, baseŕi zâŕak;
ale goŕiz
abailduta sagaŕak:

oro laño
mê batek estalia,
uŕez oro
eguzkiak yantzia...

Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
beyondeizula zuri!...

Zure bazter,
gurazko abeŕia,
doa zoro
ta (bertan ni) bultzia...

Desde el tren en marcha

Oh, tierra, tierra!, mi tierra mía! Oh blanda mañana, nacida sonriendo dulcemente!...

Verdes maizales, montes, viejos caseríos; manzanos que el rojo fruto abruma:

todo velado por una tenue niebla, todo dorado por el sol...

Labrador, parecido a un gigante erguido sobre la heredad: dichoso tú!...

Por tu orilla, mi patria de deseo, corre locamente – y yo dentro de él – el tren...

Oi, ene lur,
ba'ninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz asea!...

Bañan... ezin:
bêko bear goriak
narama .. Agur,
soro, sagar, mendiak!...

1929-Dagoniĺa.

Oh, tierra mía, ojalá fuese tuyo, y cultivándote, me saciaras de tu premio!

Mas..., no puedo. La vida hirviente del llano me arrastra!... Adiós, montes, manzanos, tierras de labor!.



Paris'ko txolarea

Txolaŕetxo, txolaŕe,
Paris-erdikoa:
Bourse'ko iskanbila
(gizon zoro batzaŕe)
ez ote naikoa
i izutzeko, axolakabe biribila?

Farol itzali baten
txapel-galuŕera
etoŕi aiz txuxen
apur ostu bat yaten:
batetik bestera,
txapelaren muturak arin dituk gaintzen.

Salto banakin, begi
ernaiak luŕera:
ez aiz i makala:
begiraldi luzeegi
gabe, baator bêra:
ez, alearen ordez, yasotzera azala.

Kafetxean bainago
astiaren yabe,
zer egin oberik,
(ezer ez gogarago)
muñak urtu gabe,
zerbait, alarik ere, gogo-yolas baizik?

Gorrión parisién

Gorrión, gorrioncete del centro de París. ¿Ni el rumor de ese cónclave de locos que es *La Bourse*, atrevido impertérrito, puede ponerte espanto?

Llegaste en derechura sobre el capuz de un foco sin luz, mientras comías una migaja hurtada. Y luego, diligente, uno tras otro, todos sus ángulos ocupas.

Con cada salto el suelo enfilas avizor. ¡No eres tú mala pieza! Corto fué tu inquirir, y desciendes veloz. No, por cierto, a llevarte cáscaras sin meollo.

Sentado en un café, dueño a placer del tiempo, ¿qué mejor ni más grata tarea para mí que aquesta? Sin que llegue a licuárseme el seso, juegue el ingenio un poco...

Leioak lauso dira,
eguraldiaren
antzo. Baŕenean,
giroaren arira,
loxustak egiten
moŕoi mantal-zuriak daude bazteŕean.

Begira, bêtik gora,
beŕiz txolaŕea.
Keñuka begiak,
irentsi du, gerora
luzatzeka, alea
Esku – (?) – peko guri bat boteaz,... an'tziak!

Paris'ko txolaŕea:
zertan aiz berezi
nere eŕiko batez?
Azalez, soin-aŕea;
baŕenez, biuŕi;
kideago zaitezten.. , eztakik prantzesez!

Kanpantoŕe xâŕean
bata bezin lasai,
bestea da maiztar
Tuileri goitaŕean
Egingo nuke, bai,
angoa lotsa ezetz onuntza ba'nekar.

Nublados los cristales, tal cual el tiempo, veo. Y, del mismo a tenor, duermen por los rincones siestecillas los mozos de níveo mandil.

Mas, cátate que vuelve ya al foco el gorrión. Y al punto, sin demora, con un guiño en los ojos, deglutió su botín. Y, dejando humeante propina, raudo auséntase. (1)

Gorrión parisién: ¿de un gorrión aldeano te distingue algo a tí? Vistes de pardo y es traviesa tu intención... Para más hermanaros... ni aún sabes el francés.

Con igual desahogo sois inquilinos, uno del viejo campanario, el otro de la insigne Tullería. Y apuesto no se encogiera aquél como aquí lo trajese.

---

(1) Hay una reticencia sin traducción posible, y no del todo pulcra por cierto, ocasionada por el hecho de que en *euskera* se llama a la propina «bajo-mano».

Nun-naitar izan-miñez,
ostera, gizona
bai txori baldaŕa!
Alegiñak egiñez
bebil andik onâ:
etxez kanpora beti duk baseŕitaŕa.

Labur: nere burua
Paris'en ikusiz
ain lotu ta arlote,
otoi nizun zerua,
zeatz adiraziz
gizon baño naiago nukela txolaŕe.

1930.

OAŔA: txolaŕe = gorrión.
Garbizaleak alda ditzateke itz banaka batzu onelatsu:
Farol = dizpil (foco, arco voltáico, Neol).
Txapel = ginbail.
Mutur = erpin.
Salto = Yauzi.

Mirad, en cambio, al hombre ¡Qué desmañado pájaro en su perpetuo afán de cosmopolitismo! Vaya, retorne, empéñese... Así que de su casa salió, ¡rústico siempre!

En resumen. Que viéndome en París tan paleto y desgarbado, al cielo quejéme justamente, expresándole cuánto más me holgara de ser gorrión, que no hombre.

Otartxo utsa

(Alaba bakar zuenari,
aita-alargunak.

Zumezko otartxoa,
bazteŕean utsik...
Noizdanik, gaixoa,
ez duzu lorerik?

Udabeŕiero
baizenkustan ikus
lore-ontzi naro,
zergatik gaur ain uts?...

Mendian ari da
kukua kantari;
Basoa ta Itzala
elkaŕen maitari;

mitxeletak, ilkor-
ezik beren ustez,
badabiltza an ta or
lur apaindu gainez...

El cestillo vacío

(El padre solitario, en memoria de su hija única, muerta).

Pobre cestillo de mimbre, exhausto y abandonado, ¿desde cuándo estás sin flores?... Si todas las primaveras fuiste bien colmado búcaro, ¿por qué te encuentro hoy vacío?

LOIOLA
E. L.

Canta el cuclillo en el monte, ámanse el Bosque y la Sombra... Las mariposas ilusas – las que créense inmortales – sobre la tierra enjoyada van y revuelan y vuelven...

Zumezko otarñoa:
udabeŕia izan
ta, nola, gaixoa,
zaude baxteŕean?...

Yun baita, betiko
yun, aitaren poza!
Loreak biltzeko
ez izaki gauza!

Beso biguin aiek
gogortu baitziran,
ta itzali begiek
gau etengabean!...

Zumezko otartxoa;
eŕaidazu, aŕen,
uts duzun ondoa.
Ez ote, bederen,

loreño bat âztu
zure sabelean;
aita dadin poztu
bere negaŕean?

Puesto que es ya primavera, ¿qué te tiene arrinconado, pobre cestillo de mimbre?

Es que para siempre fuese la alegría de su padre.
Es que coger ya no puede flores.

Es que aquellos brazos delicados están rígidos...
Y apagáronse los ojos en la noche perdurable!

Cestillo de mimbre, dime si tu fondo está vacío.

Ve si no quedó olvidada en tu seno alguna flor...
Una sola, que a este padre sin consuelo consolara...

Ondar ximelenik
gabe zen otaŕa...
Yaso dut geldirik...
Ari dut negaŕa...

Geroztik, iñoizka,
urbiltzen natzaio:
begira nagoka,
begira, luzaro...
Ta saŕi (gogoan
iduritu bizi)
lore bat, ondoan,
eginik du mami.
Lore bat, goŕia,
mardul, eze, beti;
erts-ezin zauria
odolezko iduri...

Oroitzezko lore,
laztan biotzeko,
itzali den nere
izaŕarentzako.

1930.

En el cestillo de mimbre ni una marchita hoja había. Recogílo quedamente. Mis ojos manaban lágrimas...

Desde entonces, donde guardo mi cestillo voy a veces. Y me paro a contemplarlo, a mirarlo largamente. Y, de pronto – ¡oh, del espíritu vívida alucinación! – surge en el fondo una flor. Una flor surge, encarnada, fresca siempre, siempre viva, como llaga ensangrentada que no se cerrara nunca...

¡Flor de recuerdo, caricia del corazón, ofrecidos a la estrella hermosa mía que por siempre se ha extinguido!

A g u r !

Adiskide kutun, lagun zorigabe,
azpildu-gabeko biotzaren yabe,
onerako zabal, edeŕak su-bera:
atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!

Elkar-ordañaren ezti berdiñaka
bein ta beŕiz uka maitasunak baitik,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik
(ala baita mikatz sagar bat elduka);
aldegiña aiz uŕun, lagun biotz-bera,
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera.

Adiskide laztan, eun bider gaxoa:
gogapenak elkar bil-ari mêñoa
beñola zaik eten... Adi-yauregia!,
yabe dituk, geroz, gaua ta nâsia.

Irudimena uan giaŕa, yoria;
bañan, ega-baldar baitabil txoria
luŕera-beaŕka zauri doanean,
oŕen antzo zian ark oi, maizenean.
Odol eri batek ezetua iduri,
beltz-ikusbera uan, izukoi, urduri...

* * *

Adios!

Compañero entrañable, infortunado amigo, corazón sin doblez a la bondad abierto, propenso al entusiasmo que la belleza inspira! Ven, Onuzki, hoy a mí: evóquete el recuerdo...

Tú, a quien Amor negó con reiterado encono la miel sin semejante de la correspondencia; tú a quien la vida sólo hizo ofrendas de hiel, cual pudiera una amarga manzana no madura; haste ausentado lejos, al destierro sombrío que tras de las fronteras yace de la razón.

¡Amigo bienquerido, desdichado mil veces! Quebróse un día el hilo sutil que tu pensar ataba... Desde entonces, en el palacio reinan, de tu intelecto, nieblas de noche y confusión.

¡Qué robusta fué y pródiga tu imaginación! Mas voló de continuo con el torpe volar de ave herida que presto derrumbaráse a tierra. Como si emponzoñada sangre hubiera por riego, mostróse siempre lúgubre, espantada e inquieta...

* * *

Gaberik gabëen-gaupean bai'ago;
gaztetzaro-ogitik yakide ninduken
onen onginaia ezpaituk siñisten;
ai, nik âl-ba'nezaik, nik âl (eztiago
loak ar-basoan ilargia baño)
ene oiu au sar biotz ilerañó!

Ene oiu au sar ta biotza biztu,
ta iizal-yauregian giz-argia izetu!

Ezin âl-ba'ledi, Yaun eŕukioŕa,
barkatu zaiozu zizukean zoŕa;
ta Argi-Abeŕian ikus âl-nezake
lauso-eziñezko adiaren yabe;
ta âl-bezat, Yaun, otoi, besarka negaŕez.
beste iñon ez ainbat negaŕa dan emez!

1930

Pues que la noche sufres de una atroz privación, y en la amistad no fías de quien partió contigo, a una mesa sentados, el pan de juventud, ojalá yo pudiera, ¡ojalá!, hacer entrar, suave como en el bosque dormido entra la luna, este gemido mío en tu muerto corazón.

¡Entrara en él, volviéralo a la vida y humana luz encendiera dentro de la mansión sin luz!

Mas, si así no ha de ser, piadoso Dios, la deuda perdónale que hubiere ante Tí. Y en la Patria Luminosa yo un día véalo en posesión de razón que ya nunca velará más la niebla, y con lágrimas dulces, tan dulces cual no puede sino allí ser el llanto, abrácelo, ¡oh Señor!...

Biotzean min dut

(ILETA - ERESI)

(Amona zanaren eortz-egunean).

Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña.
Amonatxo bat nun: gaur, enarak
etoŕi-garaiez, aldegiña.

* * *

Eguzkirik ez dute
leiotan zapiak;
aur-yolasik ez dago
gaur zure kalean.
Odeiek lits uŕatu;
itsasoak oŕo.
Gizadi bat geldirik;
gero, bat-batean:

Ots !
Ots !
bizion oñok...

Duéleme el corazón

(ELEGÍA)

En el día del sepelio
de la abuela.

Duéleme el corazón; duéleme con dolor resignado; dolor de llanto silencioso. Quedábame una abuelita. . Hoy, a tiempo que las golondrinas llegan, ella se ha ido.

No tienen sol los lienzos tendidos en las ventanas. No hay jugar de niños en tu calle. Las nubes muestran desgarrados flecos; ruge el mar. Un grupo de gentes está inmóvil. Luego, de pronto:

Resuenan, resuenan los pasos de los vivos...

Eŕezka bi gizonek
argizai oriak;
gorputza lau bilobok;
atzetik andreak.
Ai, ene lor arin au
zein dudan laŕia!
Besoek ez lan aŕen,
biotzak nekeak...

Ots !
Ots !
bizion oñok...

Mendea ia betea,
ta ain ilaun, gorputz xâr!
Bezak gcgoa goien
i bezin ariña,
ta bezat nik nerea,
dei nazatenean,
ezin-itzal-Argiruntz
egatzeko diña!

Ots !
Ots !
bizion oñok...

Doble hilera de bombres, con velas amarillas; el cadáver, que llevamos cuatro nietos; detrás las mujeres. Ah, ¡cuánto me pesa tan liviana carga! Poco se cansan los brazos, ¡pero el corazón!...

Y siguen resonando nuestros pasos...

Casi llevas un siglo encima, cuerpecillo viejo, y ¡puedes ser tan leve! Que tu espíritu more ya arriba, como tú ingrávido; y ¡ojalá al mío, al sonar su hora, lo sea bastante para volar hacia la Luz Inextinguible!

Y nuestros pasos, los pasos de los vivos, resonaban siempre...

Orain larogei urte,
kale poz-gabeok
eguzkiak zitun ta
zure aur-yolasak
alaitzen. Gaur, aŕiak
ere baitira itzal...,
¡nork lekuskez, ikusi,
urte urdin igesak!

Ots !
ots !
bizion oñok...

Egun zârak yoan ta
beŕiak etoŕi,
gaur poz biar oñaze,
noiz burni noiz zĭlar,
zenbaitek ondamendi
baituten katea
lore-sorta bekizu
goi-muñoak zear!

Ots !
ots !
bizion oñok...

.....
.....

Ochenta años atrás, el sol y tus juegos de niña ponían regocijo en estas calles... ¡Quién viera los tiempos luminosos que fueron, hoy que hasta en sus piedras muestran sombría tristeza!

Resonaban sin cesar los pasos de los vivos...

Que esa cadena que formaron los viejos días y los nuevos, unos con dolor, otros con alegría, tan pronto férrea, como áurea; que esa cadena de la vida, ruina de tantos, sea para tí, a través de los celestiales collados, ramo de flores.

Y seguían resonando nuestros pasos...

. . . . . .

. . . . . .

Bat-batean eten da
bizion ots ori.
Gorputza laga dugu
nunbait. Al-dakit nun!
Bultza naute baŕura...,
ñir-ñir aunitz argi...;
ordia-antzo sar nazu,
begi-lauso ta urgun.

Ots !
ots !
enegan, biotz!

Amonatxo! Bakaŕik
zagoku atean,
otz ta gogor, entzuten
zure azken-Meza!
zeŕaldo-olen artetik
(negu-gaua iduri)
ez al-datortzu, uluka,
aize eŕuki-eza?

Ots,
ots,
enegan, biotz!

De pronto, interrumpióse nuestro propio rumor. Dejamos en alguna parte el cadáver. ¡Qué sé yo dónde! Empujáronme dentro. Temblaban muchas luces. Como un ebrio entré, tambaleándome y nublados los ojos...

Resonábame, resonábame dentro el corazón...

¡Abuelita!... Tenémoste en soledad, ahí a la puerra, helada y rígida, asistiendo a tu postrera misa... ¿Por ventura, como en noche invernal, no llega a tí el viento, aullando despiadadamente por entre las maderas del féretro?...

Y seguía resonándome dentro el corazón...

Begiok ero ditut,
noranai doazkit;
dantza nâsi bat dabilt
irudimenean.
Goruntz egik, biotza:
otoika lasa adi!
Ixilla sor ba'dadi
ire baŕenean!

Ots,
ots,
enegan, biotz...

.....
.....

Ordu bete luzea
igaro zan. Noizbait,
beŕiro lor illauna
besoek... Uŕena,
muño baten gañean
uri ixil bat arki...
Poz-oñaze-kateak
emen dik etena.

Ots !
ots !
bizion oñok...

.....
.....

Locos tengo los ojos, que escápanseme sin rumbo. Báilame la fantasía una danza de confusión. Álzate a Dios, corazón; desahógate orando, si es que en tu interior puede renacer el silencio.

Resonábame siempre, resonábame el corazón...

. . . . . .

. . . . . .

Transcurrió una larga hora, hasta que por fin nuestros brazos tomaron de nuevo la leve carga... Más tarde, sobre una loma, dimos en un silencioso pueblo. Es aquí donde se rompe aquella cadena de alegría y de dolor.

Resonaban nuevamente los pasos de los vivos..

. . . . . .

. . . . . .

Ol bat yaso ta ikusi
dut musu ximela:
paŕe-antxa, bizirik
ba'lirau bezela:

(Ots !
ots !
ler adi, biotz!)

ordun, ixar bat biztu
du nere gau beltzak.
Begioi malko ixil bat
dadarka darite.
Noizbait itxaro-kabi
biur dan biotzak:

(Ots !
ots !
yauzika, biotz!)

»Agur!, (oiuka dio),
»gorputz ximur maite!
»Agur, amonatxoa!
»Egun Aundirarte!...»

* * *

Levantaron una madera y ví tn rostro arrugado; sonreía, como si aún conservase vida...

(Resuéname, y quiere estallarme el corazón...)

Entonces mi noche oscura encendió una estrellita. Derramóseme temblando, de los ojos, una callada lágrima. Y el corazón, convertido al fin en nido de esperanza:

(Resonando, resonando y saltando...)

«¡Adiós!» (dijo a gritos) «¡Adiós, pobre cuerpecillo querido! Adiós, abuela: ¡hasta el Gran Día!»...

. . . . . .
. . . . . .

Biotzean min dut, min etsia,
zotiñik-gabeko negar-miña
Alatsu txoriak, uda-ondoz,
negua du galazi-eziña.

1930.



Duéleme el corazón... Duéleme con dolor resignado; con un dolor cuyo llanto no tiene sollozos... Como cuando el pájaro, tras del estío, vió llegar el invierno que no podía evitar.



Zuaitz etzana

Zuaitz bat, urtezua, luŕera botea...
Zâŕa izanagatik bazun ark osasun betea!
Ondoan oŕa agiri, zornak ezotua,
aizkora ankeŕaren ebaki saŕi-beŕitua.

Erorkoa bigundu-beaŕez autsiak,
adaŕetarik zenbait lur uŕatuan yosiak
Goruntz, luze-luzerik, gañerontzekoak,
otoi eŕuki bekiela zeruko Yainkoak.

Zuaitz lagunak begira agozkik ixilik,
eŕoak dardarati, adaburua geldirik.
Luŕa naigabez zegok, aizea zinkuruz;
txoriak uŕun aldegiñik, izuaren izuz.

* * *

Arbaso pakezale agurgaŕi oŕek
iñorentzat onginaia besterik izan ez dek.
Betidanik, eskale labur, emaĺe eder:
ire bizi guztian, txarkeri bat al-duk ager?

Arbol yacente

Un arbol añoso, derribado en tierra. ¡Robusta salud era la suya, no obstante su mucha edad!... Muestra su base, húmeda de savia, el corte a golpes reiterados del hacha cruel.

En la tierra desgarrada incrusta varias de sus ramas, que partiéronse al pretender endulzarle la caída. Tiéndense las otras arriba cuan largas son, clamando piedad al Dios del cielo.

En silencio te miran los árboles compañeros, temblándoles la raíz, inmóviles las copas. La Tierra está desconsolada; gime el viento; hanse alejado los pájaros, presa del mayor espanto.

* * *

Patriarca pacífico y venerable, que nunca hubiste sino bien querer para todos .. Ni una sola ruin acción registra tu vida... De siempre fuiste corto en el pedir, y en el dar, generoso.

Eskatu?... Aizeari, laztan bat oxkiro.
Txoriari, kanta zezala goizetan eztiro.
Andre' luŕari, zertxo? Ezegai-tanto bat.
Zer-eskaturik ez uan, soilki..., gizonarentzat.

Eman, ordea?... Txoriari, abaroa;
aize adiskideari, ots eztirik nun-yoa;
luŕari, bustibide ta zimaurkigaia;
ar berberak arki ditek i'gan babes alaia.

Ta gizonari?... Geien oŕetxek iri zor:
ari ainbat ik emanik etzegok iñun iñor.
Ire itzala, ire eguŕa, ire edergaŕia
ta arnaririk artu-ala, gizonaren zatia.

Azpian duk ikusi aren gorabera:
aurtzaroan yolasti, mutiletan amets-bera;
lan-izerdiak eta ondo-atsedena;
ile-urdintze ta aguretzea; ta azkenik..., azkena.

Bitartean, zuraren biribilkietan,
ainbat mende esku sendoaz idazten iardukan.
Amaika aldiz lurpera gizonek gizonak...
Zuaitza bizkor beti ere zedukan Yaun onak.

* * *

Pediste... Al aire, una caricia fresca. Al pájaro, que te cantase dulcemente por las mañanas. A doña Tierra, una gota de refrigerio. Sólo al hombre no pediste nunca nada.

Pero, ¿dar?... Sombra de frondas al pájaro. Al amigo Aire, dístele en qué rumorear musicalmente. A la tierra, proporcionástele riego y fertilizante... Hasta los gusanos hallaron en tí alegre refugio.

¿Y al hombre?... Él fué quien más te debía; nadie se encontrará a quien hicieses más dádivas. Tu sombra, tu leña, tu ornato; y, de tu fruto, cuanto coger pudiera; esa fué su parte.

Todas sus vicisitudes han pasado bajo tí. Vístele juguetón en su niñez; soñador en su juventud; viste el sudor de su trabajo, y su descanso, después; vístele blanquear la cabeza y envejecer; viste, por fin... su fin.

Entretanto, en los círculos de tu madera, ibas marcando siglos y siglos con firme mano. ¡Cuántas veces los hombres enterraron a los hombres!... Mas, el Señor bueno mantenía siempre en pie al arbol.

* * *

Izadiari zizkiok kendu-alak ken...
Aren irentsi-beaŕa ez dik ezerk asetzen.
Laŕeko zezena, oianeko basauntza,
odeietako txoriak. . Oro gizonak eiza...

Azkenik, beartu duk zuaitz zâŕaz ere,
yauregi bat eraikitzeko zutikako ta abe...
Belarpeko txuloa kilkeŕak bai eder,
baña gizontxoa – alegia! – ez izaki kilker!

Ta an datorkik beñola, eskuan aizkorez:
zitalak nai au eratxi, buŕuka koldar-bidez!
Ark yo ta ik ezin baituk burua geriza,
amildu aiz goitik, atereaz lertu-ots gaitza.

* * *

Idiak or. Kate bat lotu dik itzaiak.
Zeŕak, ozen, uŕundik, iŕika-dizkik eŕaiak...

Luŕa ta biok elkaŕi munka zaudete:
ain adiskide zâŕek azken-aguŕa bai neke!

* * *

Ha quitado a la naturaleza cuanto era susceptible de quitársele. Su voracidad con nada se sacia. El toro de las praderas, el ciervo de la selva, las aves del cielo. . .; todo fué presa del hombre.

Y, por fin, sintió la necesidad de tenerte también a tí, viejo arbol, para postes y vigas con qué construir su palacio. . . Bien está que al grillo le parezca hermoso su agujero bajo la hierba; pero, el hombre... ¡no es ciertamente un grillo!

Y hélo ahí venir un día con el hacha en la mano; quiere el canalla abajarte en cobarde lucha .. Te golpeó; tú no te podías valer, y, desde la altura, te precipitaste en medio de un desgarrado estruendo.

* * *

Ya están ahí los bueyes. Te ató el boyero una cadena. A lo lejos, la sierra anhela sonoramente tus entrañas.

Os besais la tierra y tú... ¡Qué penoso es el último adiós para amigos tan viejos!

* * *

Ba'aramakete, eraman!, zuaitz eroria...
Eŕukia garaituz, betor nerekoikeria.
Ba'aramakete, eraman!, bestela, mendia
ezpai-nikek geiago begiaren pozgaŕía.

1930.

Mas..., llévente, arbol caído... Pueda en mí más el egoísmo que la piedad. Llévente, sí, llévente; que, si nó, el campo ya no tendría alegría para mis ojos.



Urte-giroak ene begian

I-BIZIA LO

Otsail-erdi

Egur ezearen kea
goiak du kolore:
egunaren atariruntz
zauri bat, gordiña,
odol-beaŕean uŕe.
Sakoneko lañoz gora
tontoŕak eluŕez:
itsasoa iduri,
ametsezko ontziez

Bide-ertzean, ez maŕubi
ez belar gizenik.
Otalorea, bakanka,
goiztxo kaŕaxika,
Udaberíari deika.
Or pago bat, lerden-aski,
igazko apaingaŕiak
(gaur orbel goŕiak)
oso yaregin nai-ezik,
nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak.

Paisaje de las estaciones

I–LA VIDA DUERME

Mediado Febrero

Tiene el cielo color de humo de leña verde, y, hacia el atrio del día, tiene una herida fresca con oro en vez de sangre. Cumbres nevadas sobre la niebla del profundo: como si fuera un mar, y en él naves de ensueño.

No hay fresas en la orilla del camino, ni hay hierba jugosa. Hay una que otra flor de árgoma estridente que, por anticipado, llama a la primavera. Hay un haya gallarda, que no suelta del todo sus galas, las de antaño, hojas resecas hoy; como las solteronas duras de resignar. En el zarzal sin

Ostobakandu-sasian
kabi bat, uts, uŕatua...
Aŕu-bêtik eŕekak ots,
euriteak bulartua...

Basora naiz. An-or,
goldiozko ogean,
yoan-elurte gaitzaren
ondaŕak nabari;
kabidun usoak, ala
emazte zûŕaren
zapiak iduri.
Aritzak, eundaka,
aier zazkio goiari,
argi-lênenkia
egaŕi baitute,
arako uŕezko zauria
izanik ituŕi.
Oŕengatik daude
luze-luze egiñik,
artean oñak ilunik,
azken-arbazta-begiez
udabeŕirako
ornitzen biziez.

O, zein aizen eder loa:
eriotzaren anaitzakoa:
bizitzazko urloa!...

1930

hojas, roto, vacío, un nido. En la barranca honda un torrente resuena, que hinchó el largo llover.

Llego al bosque. Esparcidos sobre el musgoso lecho, restos de la reciente gran nevada semejan palomas anidadas o ropas a secar de hacendosa mujer. Cientos de robles tienden al cielo su deseo sedientos, anhelando las primicias de luz cuya fuente es aquella herida hecha de oro. Por eso se los ve tan tendidos y largos, que, a favor de las yemas de sus ramillas últimas, y aún en sombra los piés, para la primavera van absorbiendo vida.

¡Qué hermoso eres, oh sueño! ¡Qué hermoso, pretendido hermano de la muerte: tú, remanso de vida!...

II-SAGAR-LORE

Loreil-bete

Anitz egunez, ez gera alaitu
lurtaŕok. Goien sar egin baitu
Euri'k Eguzki giltzapean;
yaun oraıl eder, legorteen aita,
katez loturik egona baita
odei bustien sabelean.

Gaur, oŕa agiri, tarteka, urdiña...
Sor zait baŕuan laŕera-miña;
ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi.
Bete ditzadan argiz begiok;
eten zain-giar lotuegiok;
bulaŕa asetuz noan geldi.

Badut zalantza zein giro izaki;
otzaren âla danentz ebaki;
ikus ezpaitut Udabeŕi...
Baña, bat-batez, gain-bêra, maldan,
moltso zuri bat... Elur ez al-dan,
loreak ote... ¿âl igeŕi!

II - MANZANO EN FLOR

En pleno Mayo

Largos días hemos vivido sumidos en tristeza los humanos. Es que Lluvia, allá arriba, puso en prisión a Sol; y el rubio señor hermoso, padre de las sequías, ha estado, cargado de cadenas, en el seno de las húmedas nubes.

Mas hoy, por intervalos, parece un poco el azul. Y yo he sentido dentro una viva nostalgia de campo, y, tras una larga ausencia, vuelvo al monte. Que los ojos se me llenen de luz; y vosotros desperezaos, músculos entumecidos; sáciense mis pulmones mientras subo poco a poco.

Dudo acerca de la estación en que estamos... ¿Pasó el reinado del frío?... Porque, a Primavera no la he visto aún. Mas, de pronto, de arriba abajo en la pendiente, una explosión de blanco... ¿Nieve?... ¿Flores?... Difícil decisión.

Ari beltz oker nâsi sareak
eundaka atzitu ditu ¿loreak?,
¿elur-malutak?, ¿mitxeletak?...
Itxon: txori bat, zear, egaka
dabil, kabigai-loŕez, esaka:
– Gaur dira gure maite-bestak!

Sagasti beŕi, sagasti zuri,
inguma-atsegintokia iduri,
elurte arian geldia!
Ezin urtuzko txingor ugari,
azpi gizenean duk nabari
zelai-bitxizko loredia...

Zertan udalen dan igertzeko
begi bear diot bide-ertzeko
pago pertxenta gazteari,
ta ikus orbelez dan erantzia
ta apaingaŕi beŕiez yantzia,
baso zabalen aitzindari?

Zertan bear dut yakin Itzala,
pagadiaren ume yaukala,
neska-kozkortzen ari al-dan?...
Kilker olerkari arloteak
neurtitz ozenak ditun boteak
luŕezko yauregi-atean?...

¿Son flores lo que ha cazado esa red de hilos torvos, negros, revueltos?... ¿O bien, copos de nieve?... O, tal vez, ¿mariposas?... Pero, atended. Un pájaro la ha atravesado volando, cargado de materiales con qué construir un nido. Y decía: – Hoy es la fiesta de nuestro amor.

¡Joven manzanal, manzanal blanco, semejante a un paraiso de mariposas, o a una nevada que se inmovilizó en el aire! Hay, a tus pies, en el cesped lozano, como un profuso granizo imposible de licuar, hecho de flores de prado.

¿A qué mirar, para saber si es primavera, al haya joven y pizpireta que hay junto al camino? ¿A qué comprobar si desnudóse ya del follage seco y si, heraldo de los bosques anchurosos, cubrióse ya de nuevo adorno?...

¿Necesito averiguar si Sombra, la hija espléndida del hayedal, va haciéndose adolescente?... O si el grillo, silvestre poeta, dió ya en lanzar sus versos sonoros a la puerta del térreo palacio?...

Bego tximiŕiten egaketa;
beude maŕubi-loreak, eta
irusta-sala ere bego:
dantzari-talde, *Baco*'tiaŕak,
nâspil zoroan zuti-baldaŕak,
esku goituan ontzia ardo...

Ene begiok, ez so besteri:
bide-ertz onetan nadin eseri,
iri begira, sagastia...
Sagasti gazte, sagasti zuri,
inguma-atsegintokia iduri,
elurte arian geldia!

Txuriaz nâsi, pipil gurien,
ler-gabe-lore zabal-zorien
goŕixka, nabari duk saŕi,
odol-tantoak antzo... Begira:
erditze baten aztarnak dira:
Bizi-erditze zoragaŕi!

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki.
Negu agurea iĺa da, baiki,
luŕa soil baitago eluŕez:
oro dezaken esku naroak
erein baititu zuaitz-soroak
ogi beŕiaren apuŕez...

¿Qué me importa el volar de las mariposas?... ¿O el fresal en flor?... ¿O la pradera de trebol, semejante a una muchedumbre de danzantes báquicos que, tambaleándose sobre los piés, muestran en las manos enhiestas las copas de vino?...

¡A nada más miréis, ojos!... Siénteme al borde del camino, y contémplete a tí, manzanal... Manzanal blanco y nuevo, que semejas paraiso de mariposas, o nevada inmóvil en el espacio.

Salpicando tu blancura, como gotas de sangre, muestras el rosal de los capullos tiernos, de las flores aún cerradas pero a punto de estallar... Son como huellas del parto magnífico de la Vida.

¡Volad, pájaros, y cantad jubilosos!... Que Invierno, el viejo, murió, y ya no hay nieve en la tierra; que la pródiga mano todopoderosa sembró ya de migajas del nuevo pan los árboles y los predios...

Bekik iretzat oiu alai au:
sagasti, iretzat; bereizki bai'au
yaiez yantzi zorna beŕiak!
Bizitza duk agiri gaŕetan...
Bizitza, ler-beŕi, adaŕetan...
Igan dik sort-ogea Udabeŕiak!

1930.

Y sea para tí solo este gozoso grito mío: para tí, manzanal, a quien la nueva savia ha vestido de fiesta de un modo predilecto. La Vida brilla llameante en tí, la Vida acaba de reventar en tus ramas... ¡En tí la Primavera tiene su lecho natal!



III-BASO ITZAL

Uzta-uzta

Úrun duk, sagasti beŕi, lorea.
Arizti, uŕunago elurtea.

Galuŕera igoa dugu Iguzkia,
nondik yaurtiko zutago gezia.
Begi-ogeak ¿nork sakon-askiak
gañez ez dakien aren argiak?

Uda! Mendiak i au eguerdi,
ta uŕezko opor-aro, ta abaro-aldi...

. . . . . .

Gurdibide bakan-ibil ertzetan
masusta-sasia dago loretan.
Ango kixkalbeaŕa! Ango marmaŕa!
Ego-begi izaki-ta, aizeak gaŕa:
irakin diraki, beroz ezezik
erlëen egoek yo ta nâsirik...

. . . . . .

Aŕu-bêtikez dator gaur ur-otsik...

Txoriak abaroetan ixilik,
goiz-yardun bakaŕez etsi baitute.

III – BOSQUE UMBRIO

Pleno Julio

Cuán lejos, joven manzanal, tu flor! Y aún más, robledal, tus nieves...

Subídose ha Sol al zenit, buscando cómo lanzar su dardo más a plomo. ¿Quién tendrá asaz profundos los hoyos de los ojos, que no se los colme su luz?

¡Estío! Mediodía del campo, ocio dorado, dulce sestear...

. . . . . .

Orilla del camino carretil poco transitado, está en flor la zarzamora. Abrasa el sol y un rumoreo suena. Sitio orientado al sur, el aire llamea, hirviendo tumultuosamente, no sólo de calor, sino batido y revuelto por aletear de abejas.

. . . . . .

Hoy no sube desde el barranco ruido de torrente. Los pájaros callan en las frondas: transigieron con dar un solo concierto, el de la mañana.

Egonean daude zuaitzak ere...
Sagaŕak eskuan ditu igaliak
Eguzki eŕegeri eskeñiak:
geldiak gizendu, egonak goza;
nagiak noizpait yalkiaraz bitza...

. . . . . .

Beroak zapalduta datza oro:
bizidun, landare, aitz eta soro.
Muskeŕa ta artoa dagotzu soilki
eguzki goŕitan ezin izerdi.

Neguz untzi lirain, laño-gañean,
Txindoki!, orain agokit aurean,
goriak astundu-tantai aŕizko,
bêari iñoiz baño eŕotuago.

Beste erpin musker bat or baita agiri,
maldan-gora zaizka zuaitzak geldi:
oker, ats-estuka, luŕari itsatsi-
mendizale makal unatu iduri.

. . . . .

Zigor ontaz, Üda, ba'al-duk aterpe?
Ara zuzen nazak, luzatu-gabe!

. . . . . .

Descansan también, inmóviles, los árboles. El manzano presenta su fruto en las manos, en ofrenda al rey Sol. Medrándole está de puro quieto, y la inacción lo madura, y su propia pereza, al fin, lo desprenderá de la rama...

. . . . . .

Todo yace aplastado de calor... Animales, plantas, peñascos, heredades. Sólo el maizal y el lagarto parecen incapaces de sudar, expuestos como están al fiero sol.

Txindoki, leve navío de la niebla en invierno... Ahora véote ante mí parecido a un gigante de piedra abrumado por la canícula y más pesadamente que nunca vinculado al suelo.

Y otra cumbre hay allí, verde. En la ladera, cuesta arriba, se le han parado los árboles, encorvados, jadeantes, como flojos alpinistas que agarráranse exangües a la tierra.

. . . . . .

¡Estío: si refugio tienes para este azote, enderézame a él con urgencia!

. . . . . .

Leioak itxitako yauregia
basoak iduri. Lo nagusia.
Baña, badu norbait – zoragaŕia –
bidaztı-zai eder: bai, alegia!
Begira non dedan, atarpean zai,
gorputza sotīla, betartea aŕai.

Itzal!, Baso'ren ume yaukal.
xaloagorik ezın âl:
beltxeran, begi bai azal:

Itzal!...
Itzal!...

Sar naun geldixe, taupaka biotza.
Ar maitez, otoi, leŕegin-aŕotza...
Oial ilaun batez legortu didan
bekokia. Gero, aldamenean,
atzaidan eseri, andereño otxan,
ta, ai, zein gozo gauden, aopekotan!...

Atsedenaren eliz, zutoiz bete,
osto-pīlo ta izar izunak abe:
ta i bertan oianeko yaupaleme...

Gure inguru luŕa luŕun-yario,
uŕe urtuzko yasak baitaragio.
Euri gori ortaz basoa ateŕi.
Gauden, bada, maite, basoan geldi.

Palacio que tuviera cerradas sus ventanas parece el bosque. Dormido está el señor. Mas tiene, por cierto, una persona encantadora para acoger al caminante Vedla ahí esperándome en el atrio, esbelto al talle y afable la faz...

Sombra, hija del Bosque bellísima y sin igual amable...; morena de cutis y de ojos... ¡Sombra, Sombra!...

Héme aquí que entro ya, despacito y resonándome el corazón: acoje con cariño a este extraño que llega cansado. Me secó la frente con un lienzo leve. Luego sentóseme al lado – ¡la doncella adorable! – y ¡cuán dulcemente pusímonos a conversar en secreto!

Templo del descanso, lleno de columnas, formada la bóveda de muchedumbre de hojas y de fingidas estrellas: y en ese templo tú, de sacerdotisa.

La tierra en torno nuestro exhala vapores, caldeada por aquel caer de derretido oro. Mas de esa lluvia achicharrante está el bosque a salvo. Quietos, pues, aquí, querida mía.

Zuaitz-tartetandiko uŕe nabaŕa
bezagun udâren bitxi bakaŕa.
Begoz emendik ate ire ederkiak;
ar bitzate besteek laztan goriak.
Nik ireak naiago, oianeko Itzal,
ezpaitiñe egiten odola kixkal...

. . . . . .

Uda!, gar zoragaŕi, suzko itsaso:
untzi geriza untan nai aut igaro...

1930.

(Bigaŕen Euskel-Olerti-Jaican, Tolosa'n, ziĺaŕezko aritz-abaŕez sariztatua).

Sea para nosotros del estío la única joya el oro abigarrado que entrevemos más allá del ramaje de estos árboles. Quédense ahí fuera sus magnificencias y gocen otros de sus cálidos besos. Los tuyos prefiero yo, Sombra del Bosque, que no abrasan la sangre.

. . . . . .

¡Estío, llama fascinadora, mar de fuego!, en esta umbría nave quiero yo atravesarte...

(Premiada en Tolosa, con motivo de la II Fiesta de la Poesía Vasca, con el ramo de roble).

IV - ONDAR-GORI

Azaro-lêna

Uda – suzko itsaso – baitut ibili
gerizpe atsegin bat nuela untzi,
ondoaz legoŕa yo dit emeki:
ondaŕeta bat du, soil eta goŕi.

(Itsasoak bai-baitu, uŕun-ertzean,
uŕe gorizko bide-goenean,
legor bat – odol-uts iñulaŕean –
Eguzki nondik sar atsedenean...)

Aingura bota dut Aŕatsaldean:
oña dut ezaŕi Udazkenean...

. . . . . .

Beŕiro igo nauzu ene mendira,
oroigaŕi zâŕei maitez begira...
Andre Luŕak yaulki ditu igaliak;
zurbil dauka arpegia, itzal begiak.

IV–ROJA ARENA

A principios de la sementera

(Había titulado yo la traducción de esta poesía, «Playa Bermeja» (Principios de Noviembre). Pero luego he preferido sustituirla por otra que, espontáneamente, me tenía hecha mi buen amigo señor Ormaetxea («Orixe»), que es la que va a continuación, de la que yo mismo utilicé bastantes elementos para la mía). - El Autor.

Habiendo recorrido el verano–mar de fuego–en nave de regalada sombra, ella me ha zozobrado lentamente, arribando a un desierto y rojo arenal.

(El mar tiene en su orilla lejana, en su límite dorado del horizonte, (*al cabo de una hirviente vía de oro*) una playa roja–pura sangre al anochecer–por donde suele el sol ocultarse lentamente.

He echado mi ancla al atardecer (*en la tarde*): he posado mi planta en el Otoño...

. . . . . .

De nuevo he subido a mi monte, refrescando en mi memoria amados y antiguos recuerdos. La madre tierra ha desprendido sus frutos; tiene pálido el rostro, anublados los ojos.

Gurdibide bakan-ibil ertzetan
untza dago oraindik, nagi, loretan.
Or-emenka, lore zimel gañetan,
ingumak ari, gozo-miazketan...
Mitxeleta goŕi, zarpil egoak:
maitatzeka atsotu diranetakoak.

Kemenak uts-eta nekez bainoa,
zalantza dut zârtu naizelakoa...
Udazkenak aulagotzen dit atsa,
orbelak ozenagotzen oin-otsa,
aldapak laŕiagotzen biotza...
Lênetan ez bezin autsia natza.

. . . . . .

Aŕu-bêra itzuli nago. Ixurkia
basoz ta garoz yantzia:
noizbait orlegi, gaur nabar basoa;
tarteka goŕi garoa.
Beste gain erpin bat bazan agiri
lên eze: gaur burni-meatz iduri.
Luŕaren azala erdoitua da,
ala dut odola begietara...?

Aizea dabil, busti setatia:
luŕari daragio ots negartia.
Laŕeko xamoŕo ozenen zantzurik
ez da iñon. Aspaldidanik
ixil zen olerkari yaun Kilkeŕa:
aixtian, alper eder den Txitxaŕa.

A la vera del camino carretero rara vez hollado, aún está, perezosa, la hiedra en flor. Dispersadas en las flores lacias, las mariposas saborean el nectar: rojas mariposas de ajadas alas, que han envejecido sin amar.

Me falta el brío y subo penosamente; comienzo a sospechar que mi vejez llega. El otoño me debilita el aliento; la hojarasca delata con más fuerza el rumor de mis pasos; la cuesta me oprime más el corazón... Me recuesto más quebrantado que en otros tiempos.

Me situo frente a un hondo barranco. La vertiente está poblada de frondas y helecho. El bosque, en otro tiempo verde, hoy amarillea. Se ven ya calvicies de bosque con rojo helecho por fondo. Allí campeaba otra cumbre verde, que hoy semeja mina de hierro. Se ha cubierto de roña la corteza terrestre, o es que se agolpa la sangre a mis ojos?

Corre el viento húmedo, importuno, haciendo producir a la tierra lamentoso sonido. Por ninguna parte se percibe el sutil chillido de los insectos. Tiempo ha que calló el señor grillo poeta, y poco ha la cigarra, bella holgazana.

Ta zuek ¿nora, txoriok, saldoka
zoazte, ıraduz uŕundu-bearka?
Adiskide Uŕetxindor il zaizute,
ta aren ilkizunetara
– egoak ikara –
berandu-belduŕak al-zaramate?

. . . . . .

Oi, zein dan ituna
bêra-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Giroen argia galtzerakoan
lên-oiartzuna dut ozen gogoan.
Iru giro izanok, nik dei ta atozte:
nork-zeren saria ekardazute:
batak itxaro, besteak berbizte;
irugaŕenak bizitza-indar bete.
Oro bear zaitute ene biotzak,
Lên-min baidamada neurtitz zâŕen otsak!

(Negu).

Ikus bezat, Yauna, bein ta beŕiro,
otalore eziñegona...

A dónde vais, pájaros míos, en bandadas, con presurosos impulsos de vuelo por llegar a vuestro destino? Ha muerto vuestro amigo el ruiseñor y vais a su funeral, agitando las alas? Os acosa el temor de llegar a deshora?

. . . . . .

Cuán triste es la inexorable necesidad de caducar. ¡No deseara yo que el día se trocase en noche.

Mientras se extingue en mí la luz de las estaciones, suena vibrante en mi alma el eco de lo pasado. Vosotras mis tres estaciones que fenecisteis, volved por mí llamadas, trayendo cada una vuestro don: la una, la esperanza; la otra, la resurrección; la tercera, la plenitud de vida. De todas vosotras necesita mi corazón, pues la música de mis antiguos versos me causa nostalgia de lo pasado.

(INVIERNO)..... Vea yo, Señor, una y otra vez, la inquieta flor de árgoma.

(Udabeŕi).

Bekusat sagasti gazte elurgiro,
udalen-sortoge dana.
Ikus bitzat arako irusta-salak
eskuan ditutela ardo-txanbilak.
Entzun bezat iñoizko olerkaria,
zelaiean baitzun lur-yauregia...

(Uda).

Yainko-muño-gañetara baño lên,
(edeŕa baita bizia!)
uŕezko itsaso bebilt urduria,
Itzal dudala laguntzale lerden.

. . . . . .

(Udazken).

Ta udazken-atsaŕeko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean!

1930.

(PRIMAVERA)..... Véate, joven manzanal de flor de nieve *(como nevado)*, cuna de la primavera. Vea aquellas parcelas de trebol, que sostienen en sus manos ánforas de vino. Escuche yo al poeta de otros tiempos que tenía en la vega su terrenal palacio.

(VERANO)..... Antes de ganar las cumbres divinas (es tan hermosa la vida!) navegue yo (1) en el dorado mar inquieto, y sea la sombra mi esbelta compañera.

(OTOÑO)..... Y en una mañana de principios de otoño (2), despierte yo en la plenitud divina.

---

(1) Me gusta más la traducción literal de esta frase: «gire aún en mi derredor el dorado mar inquieto...» (El Traductor).

(2) «Comienzo de sementera...» (Id).

Nota. Los paréntesis en cursiva son del autor, en los contados pasajes en que, a su juicio, el pensamiento no ha sido vertido completamente.

Eusko-bidaztiarena

Unamuno'tar Mikel, yaun argiari, gure ausardi goŕiaz yabetu dedin.

Heuskara, ialgi adi kanpora!
Heuskara, habil mundu guzira!

(Etxepare'k, orain lareuntsu urte).

BIDAZTIAR-DEI

Abeŕiaren abots eztia,
gogamenaren ezkon xuria:
ekatzan esku guria,
atorkit geldi-geldia,
uztagun, aldikoz, Euskaleŕia.

LAŔE-LORE

Eder aunagu, mintzo yoria,
eder, benetan, garoz yantzia:
laŕe-loretik eztia,
basotik euskal-mamia,
laister sortzen âl-duk, Olerkaria!

Canción del vasco viajero

Al preclaro don Miguel de Unamuno, en comunicación de nuestra insolente audacia.

«Euskera, sal fuera!
Euskera, recorre el mundo!»

(Etxepare, hace cerca de 400 años).

INVITACION AL VIAJE

Voz sabrosa de la patria, blanca esposa de mi intelecto: ven quedamente a mí, dame la mano delicada, dejemos por algún tiempo el País Vasco.

FLOR SILVESTRE

Bella eres, en verdad, con rústico atavío, lengua generosa. Ojalá pronto un poeta extraiga miel de la silvestre flor, y del bosque esencia vasca!

Ta, ala Yaunaren gogo ba'ledi
nik gogo dudan bezin gartsuki,
euskotar azal ta mami,
gure eŕiaren olerki
garaia, norbaitek lenbait-lên begi!

ORO-MINTZO

Baña nik, izkuntza laŕekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zâr, beŕi gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

AMETS-BIDEETAN BARNA

Ez adi beldur, nere Maiteder:
baseŕiz landa nai aunat ager-
arazi, bazteŕik-bazter,
aŕoki; ezpaitun ezer
lurbiran edeŕik i bezain eder!

Gogamenaren ezkon ez-antzu,
eztei-ondoko bide diñagu.
Otoi, Yauna, ibilgo-buru,
maitasun-edermen-zitu,
aur begi-argirik anitz bekargu.

. . . . . .

Y, si tal fuere la voluntad de Dios como es ferviente deseo mío, surja cuanto antes quien haga – vascos el meollo y la envoltura – el poema cumbre de nuestro pueblo.

LENGUA DE UNIVERSALIDAD

Pero yo, habla campestre, quiérote también para todo; que las alas del saber te eleven; viejo el cuerpo, nuevo el espíritu; bajo la piel amarillenta, fibra de eternidad.

POR CAMINOS DE ENSUEÑO

No temas, mi Bella-amada: fuera de tu caserío, quiero mostrarte por doquiera orgullosamente; que nada hay hermoso en el mundo que lo sea como tú.

Esposa no estéril de mi ingenio: viaje nupcial es el nuestro. Yo os pido, Señor, que al fin de nuestro caminar, muchos niños hayamos, de lucientes ojos, fruto de amor e inspiración.

. . . . . .

Itxaso bare, zelai urdiña,
muga-biribil, belar-berdiña:
goizaldea duk sorgiña!
Dirdaiez ikus egiña
mende-neurle dugun kurpil ariña...

. . . . . .

Iguzkipean ugartedia...
Ur zabalean oial zuria...
Zuaitz aŕotzen azpia,
eun oztiñek itzalia!
Or bide-zetzan Gerbault bakartia...

. . . . . .

Lekaro zabal luŕaren geŕi,
ondardi kixkal eriogaŕi:
bidazti-begiek saŕi
aidean baso ta ituŕi:
bertarañokoan ondaŕa goŕi!

. . . . . .

Dagigun-aŕaun Izotz-eŕira,
zâŕen aztaŕik danentz begira:
amaika yoan ta bira
egiñik igaz baitira,
eskuan arpoia, soñean zira!

Mar sereno, azul pradera de circular contorno y hierba igual... Embrujado amanecer el tuyo! He ahí, de esplendores hecho, el disco ligero que mide nuestra vida.

. . . . . .

Bajo el sol, el archipiélago... En el agua inmensa, una vela... Refugio de árboles exóticos velado por azules lienzos! Ahí, quizá, reposaba el solitario Gerbault...

. . . . . .

Hacia la cintura del mundo, anchurosos desiertos; mortales arenales abrasados... Muchas veces el caminante creyó ver en el aire bosques y fuentes! Mas al acercarse, sólo halló desnuda arena.

. . . . . .

Boguemos al país de los hielos, mirando si hay huellas de aquellos antepasados que tantas veces fueron y volvieron, vestidos de impermeable lienzo; en la mano el arpón.

Legoŕa zuri, beltz itsasoa:
izotz bat untzi gure ibilgoa...
Bakarte yaungoikozkoa!
Xoil, egazti bat diyoa
odeien senide, zabal egoa...

Kanta ditzagun ango gau luze,
ango ilun-nabar su goŕiz bete;
gizonek eluŕa aterpe;
luŕalde gizenik gabe;
gure Euskaleŕia'z ain guziz beste!

. . . . . .

Iri nagusi,giza-erlauntza:
zorapenezko aruntz-onuntza,
sumabeaŕa, yakintza,
sal-eros ekurugaitza,
gure elkar-indaŕak itzuli bitza!

. . . . . .

Ortzi oro ta egute oro
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...
Apaindu zernaitarako:
agi gai adirazteko
gizaki guzien alderdi ta asmo.

Blanca la tierra, negro el oceano, navegamos sobre un hielo... Soledad henchida de Dios! Sólo un ave, extendida el ala, vuela hermana de las nubes...

Cantemos las largas noches, los crepúsculos nocturnos de rojo fuego... Hombres morando bajo la nieve; tierra infertil: todo tan diferente de nuestro país!

. . . . . .

Urbes capitales, colmenar humano... Movimiento enloquecedor e inventiva; saber e inquieto comerciar: viértalo todo nuestra fuerza unida.

. . . . . .

Recoge la impresión de todo clima y todo cielo que veamos, y cántalos sabrosamente, Apréstate a cuanto se pueda querer de tí; habilítate para expresar cualesquiera manera y pensamiento humanos.

GURENTZA

Ta, bêko gaiok agor-ezkeroz,
Iguzki'k ezin urtuzko egoz
(Ikar'ek ez bezelakoz)
goazeman zeiura igoz,
izar urdiñetarañoko asmoz!

1931.

SUBLIMACION

Y cuando los sujetos terrenos se agoten, con alas que Sol no pueda licuar—no como aquellas de Icaro—, volemos juntos a los cielos, dispuestos a escalar las estrellas azules!



Asaba zâŕen baratza

Baŕena'tar Poluikarpa, adiskide min ta abertzale yatoŕari, biotzez.

I – Atarian

Asaba zâŕen baratza,
untzadun ormek esia,
eguzkiak lên maitea...
Otzaldi zoro baten itzuli,
yoka nagokik atea.

Yoka nagokik atea,
ate goŕi zurezkoa,
euri zâŕek usteldua;
maŕaskiloek bide biuŕi
dirdaitsuez apaindua.

Bai-bainun amona xâr bat
zazpi begiko baratzai;
deadarkari yaioa
maŕubi-lapur nenkusanetan...
Bizi ote-dut gaxoa?

Huerto de mis antepasados

A Policarpo de Baŕena, entrañable amigo y leal patriota, en prueba de afecto.

I – EN EL UMBRAL

Huerto de mis viejos antepasados, cercado de paredes con hiedra, amado en otro tiempo del sol... A la vuelta de un largo desatentado alejamiento, héme llamando a tu puerta.

Héme llamando a tu puerta, roja puerta de madera que pudrieron viejas lluvias, ornada por los caracoles con brillantes tortuosos caminos.

Y aquella abuela que yo había, toda ojos para vigilar su huerto, brava gritadora cuando me sorprendía hurtando fresas... ¿vivirá aún la pobre?

II – Saŕera

Sar eta... zuaitz yantziak.
Uŕats bat egin, ta... adar uts.
Oroipen-txoriez zeuden
beterik: ni ikus ta, bat-batean,
egoei eragin ziten.

Nigana datoz, nâsian..
Adiskide *min-maiteak*!
Baŕu-muñeko gauean,
su itzalitzako zâŕa gar goŕi
dabil da biur-naiean.

Belar gaiztoak yan ditu
nire bidexka izkutuak...
Ale bakanak dakartzi
bide gañeko mâstiak, eta
ortziak peitu du iguzki.

Urte yoanen zitala!
Zuek zarpildu-itzalia
lênera nork lekardake?
Zabal-naroa nuen baratza,
gaur ain estu, gaur ain gabe!

II – INGRESO

Entro: árboles frondosos... Un paso adelante: e instantáneamente, ramas desnudas... Es que estaban poblados de pájaros-recuerdos, que así que me vieron rompieron a volar.

A mí vienen, tumultuosamente... Amigos entrañablemente amados!... En la noche de mi profundo centro, fuegos pretendidamente extintos pugnan por volverse roja llama.

Mala hierba ha invadido mis apartadas sendas... Raros racimos da la vid que cubre el camino... En el firmamento falta el sol.

Crueldad de los años que fueron!... aquello que vosotros habeis envejecido y desdorado, ¿quién me lo traerá a su antiguo sér?... Tan estrecho, tan desnudo mi huerto, en otro tiempo amplio y pródigo!

III – Lêna

Baratz-erdian dut arki
amona: alderoka dator,
begi galduak nora-nai...
Eriotzak dakar besalagun,
bere buruz ezpaita gai.

Amona, zatozkit, otoi:
biĺoba laztan ezazu,
esan zadazu «biloba!»
Itz ori, soilki, zâŕak dit ondu,
ardoa oi-dun bezela.

Biraka asi zan, dei ta dei:
aita dei, ta ama; aurtzaroko
luŕak irentsi-lagunak...
Zâŕez biŕumetu danez-gero,
menbeko darabil lênak.

Eŕukaŕi! Lausorik du
gizargia begietan...
Non-nai aldiaren sitsa!
Zu'ka, zoroki, mintza zitzaidan,
zaldun aŕotza bai'nintzan.

Laztan dut. Bera, aŕituta,
begi-begira dagokit.
Gero, geldiro: «Nor zaitut?...»
Euskeraz ark niri galdegiña
gogoan besterik ez dut!

III – PASADO

En medio del huerto he topado con la abuela: viene tambaleándose, divagan sus ojos anublados... La muerte la trae del brazo, pues por sí propia no fuera capaz.

Ven, abuela, ven: abraza a tu nieto, ¡llámale «nieto»! Sólo esa palabra, como suele el vino, ha mejorado para mí con el tiempo.

Mas ella dióse a girar en torno, llamando, llamando... Invocaba a su padre, a su madre, a amigas de infancia que tragó la tierra... Aniñada por la ancianidad, es juguete del pasado.

¡Pobrecilla! Anublósele en los ojos la claridad humana...! Que en todas partes halle huellas de la polilla del tiempo!... Hablábame bizarramente de «usted», como si fuera para ella un caballero extraño.

Yo la abracé. Ella, maravillada, me miró fijamente. Luego, poco a poco:—«¿Quién es usted?» —No recuerdo que me hubiese nunca dirigido más palabra en mi idioma.

Nire begien suz sutu
naiez bereak, diotsat:
«Biloba nauzu, zâŕena...
»Zure maŕubi goŕiak iñoiz
»ostutzen oi-nituena...»

Oroi ote?... Begietan,
zalantza dut tximistarik
iragan zuelakoa.
Burua igurtzi zidan astiro,
esanaz: «Zu...? Zu...? Gaxoa!»

Ta asi zan biraka beŕiz,
il zâŕei oska, negaŕez,
eriotzaren egaŕi...
Bizitzearen ondar-aleak
laŕañean eultzen ari!

IV – Oraña

Ta, ara, bidean, baldarño,
mutiko bat guregana:
ark birbiloba, nik seme.
Ikus amonak, bertan gelditu,
ta aren eztizko iŕipaŕe!

Laztan du, pozak zoratzen:
«I aut, orain akust ongi!»
(diotsa) «I aut, bai, «olako!...»
Ta..., nere izenez igurtzi zuen
burutik oñetaraño

Pugnando por incendiar los suyos con el fuego de mis ojos, exclamo:—«Tu nieto soy, el primogénito... Aquel que solía a veces hurtar en tus fresales...»

¿Recordó?... Tengo la sospecha de que por sus ojos cruzó un relámpago. Acaricióme lentamente la cabeza, diciéndo:—¿Usted?.. ¿Usted?...! Pobrecillo?..

Y diose a girar de nuevo, invocando a antiguos muertos, llorando, sedienta de morir...! Trillaba en su era las últimas mieses de la vida!

IV – PRESENTE

De pronto, por el camino, avanza hacia nosotros, torpezuelamente, un niño: biznieto de ella, hijo mío. Verlo la abuela, detenerse en seco y sonreirle dulcísimamente, todo fué uno.

Lo abrazó loca de placer, diciéndole:—«Eres tú, sí, bien te veo ahora! Eres tú, sí, *fulano*...»—Y, llamándolo por mi nombre, lo acarició de la cabeza a los pies.

Lêna zegoen orañaz
ele gozoka. Bitzuok
mintzo beraz ziarduten.
Ene asaben lokaŕi zâŕa,
Yaunari zor, e-tzan eten!

V – Etorkizuna

Ordun eguzkiz yantzi zan
asaba zâŕen baratza;
ordun, zuaitzak igaliz;
ordun baratza lêneratu zan
mugak beŕiro zabaliz.

Ta lên ikusi-gabeko
zuaitz beŕi bat zegoan
erdian, guzien buru.,.
Aren gerizak eŕi-baratzak
ezin-ilkor egin ditu.

Nire Tabor-mendi: nire
baratz zâŕaren antzalda!,
egi, mami, biur adi:
lênaren muñak aldatu beza
baratz zâŕa baratz beŕi!

1931.

Conversaban sabrosamente el presente y el pasado, ambos en el mismo idioma. ¡Gracias, Señor, porque la vieja cadena de mis antepasados no se ha roto!...

V – PORVENIR

Entonces encendiose en sol el huerto de mis antepasados, y cubriéronse de fruto los árboles, y transportose aquél al antiguo sér, ensanchando de nuevo sus límites.

Y ví allí, en medio, dominando a todos, un arbol nuevo, antes desconocido... Es su sombra la que ha dado inmortalidad a los huertos-pueblos (1).

¡Oh, Tabor mío; oh, transfiguración del viejo huerto! ¡Hazte carne y realidad! ¡Que la esencia del pasado mude en huerto nuevo el viejo!

---

(1) El patriotismo.

Izotz-ondoko iguzki

Izotz-ondoko iguzki,
neguaren paŕe:
olerkariak noizpait
iri goratzaŕe.
Emeki duk itxaroz
piztu garai-laŕe:
udabeŕi-lamiak
laŕeon batzaŕe.

Bêtik nator, ibaŕak
izoztuta utziaz.
Mendia yaiez dago
uŕezko yantziaz.
Aren paŕea dadat
iŕika biziaz,
gozatua baitu gaur
ezti bereziaz.

Udalenak iŕia
oi-du zoro ozena;
udâk, aragikoia;
udazkenak, bena;
negu-gau ozkarbien
izotz-ondorena
beŕiz, bakaŕa duzu:
denetan emeena!

Sol sobre el hielo

Sol que sigues a la helada; risa del invierno: hora es ya de que el poeta te dedique su homenaje. ¡Qué delicadamente has encendido en esperanzas los campos de las cumbres! Junta tienen en ellos las hadas de la primavera.

De abajo llego, dejando heladas las vegas. El monte está de fiesta, vestido de oro. Con ansia viva bebo su risa, sazonada hoy con escogidas mieles.

La primavera tiene una risa alocada y ruidosa; voluptuosa el estío; triste el otoño. Mas esta que sigue al hielo de las noches de invierno claras, es única: la más deliciosa de todas.

Bai-baitator uŕundik
Gabonetarako
seme zâŕa: bidean
elurpe du oro;
etxeko sutondoan
bixkortu-ezkero,
ikus aren ezpañen
paŕeantxa gozo!

Bai-baitatza eria
ogean: erio
atzapar itsusia
luzatzen ario:
berbizkunde-beŕia
maiteak yario:
itzik ezin ta iŕia
ain ezti dagio!

Sagasti soĪa lotan,
abar makur nâspil;
zelaiek, orbelpean,
ametsetan Oŕil;
txori gaxoei aztu
gau latzaren urbil;
aizeñoa liĪurak
otxanduta dabiĪ.

Es como cuando el primogénito viene desde lejos para la Nochebuena: todo en su camino está bajo nieve; mas, apenas se ha rehecho junto al fuego hogareño, ¡mirad qué sonrisa tan dulce hay en sus labios!

O, figuraos al enfermo en su lecho: la muerte extiende ya su garra horrible; pero la amada desgrana en su oido palabras de resurrección, y él, privado ya del habla, sonríele dulcísimamente.

El manzanal desnudo—amasijo de torvas ramas—duerme; bajo la hojarasca, los prados sueñan con Mayo; olvidan los pájaros que está próxima la noche cruel; el céfiro, fascinado, corre blandamente.

Aranak mailka daude
gorantza yaŕiak;
guzien ondaŕean
laño urdin, begiak;
izotz-arnasa, agian,
baititu iguzkiak
zernai tauparazteko
men zoragaŕiak.

Ezker-alde Orexa,
eskui, Altzo-muño;
non-nai euskel-oiartzun
ortzi-mugaraño...
Dabesadan, ibaŕak
lañotan daudeño!
Dabesagun, lagunok:
geroak ereño!

Aran ta muño gañez
Aralar aundia,
euskotaŕen zaindari
Mikel'en mendia:
koskak elur-dirdaiek
bil ta, dirudia
amets eder mamitu
ortzian geldia.

Los valles suben escalonadamente, y en el fondo de todos ellos mi vista distingue una bruma azulada; debe de ser el aliento del hielo, que tál es maravillosa la virtud del sol para hacer palpitar a todo...

A mi izquierda Orexa; Alzo, el de arriba, a mi derecha; por doquier ecos de euskera hasta el confin del cielo... Cante mientras la bruma cubra las cañadas! ¡Cantemos, amigos: el porvenir nos traerá laurel!

Por sobre valles y colinas, el ingente Aralar, la montaña de Miguel el patrón de los vascos: con sus picachos envueltos en refulgencias níveas, paréceme un ensueño bello que haya tomado cuerpo, suspenso en el aire.

Yondone goiangeru
garaĺe goitaŕa,
gure arazo latza
duk bizi-beaŕa;
artarako, nagusi
dukan Yaun bakaŕa
ire bidez dotoigu,
damaigun indaŕa.

* * *

Izotzak estali zun
gure Euskaleŕia;
mintzo ozenak zabaldu
berbizkun-beŕia.
Itzal-zokondoetan
lore, izotz-bitxia;
baña gañetaz ari
yauntzen eguzkia.

Izotz-ondo. Neguak
paŕe eme. Gizadi
laŕia galuŕeruntz,
muñoak maĺadi.
Gazte-sail kementsua
goraño ba-dadi,
izozpetik eguzkik
yare dik Euzkadi!

1931.

Santo señor Arcangel, celestial triunfador: nuestro duro problema se reduce a querer vivir; por ello, al Señor único a quien tú sirves rogamos, por tu mediación, en demanda de esfuerzo.

* * *

Cubriose de hielo nuestro país; pero una estridente voz propagó nuevas de resurrección; aún, en las rinconadas sombrías, florece el cristal del hielo, mas de las cumbres va adueñándose el sol.

Tras de la helada... Ríe suavemente el invierno... Una gran muchedunbre, haciendo de los collados escala, asciende hacia la cima... Cuando esa juventud la haya ganado, el sol habrá libertado a Euzkadi de bajo el poder del hielo.

Gure mintzo

Arana-Goiri'ren
oroiz ta eskaŕez.

Nerekin yaio nun abesmiña,
ta aurtandik min ori dut izan samiña...
Kanta nai, nai alper: mintzoa
peitu, miñak bear-eztigai gozoa!

Uts bainun oskai guri berexa,
atsa yaurti aŕen ezin sor abesa;
amets-arteko oiu bailitzan,
otsaren zakaŕez izu-ikara nintzan.

Il-zârki, bizi dugun gizona!
Egunoro berpiz lurpean dagona!
Bezat onets aren izena,
abeŕiz ta mintzoz gu yantziarena.

Aren argibidez ni yabetu
enegan bazala norbait atxilotu.
Ordun, yetxi nazu lezera;
nork gere muñean dugun itzalera.

Oin kolokak zûr, begiak yoran,
zurubi biuŕez poliki ninyoan.
Guri argi ematearen
itzaliarena, eskuan nenkaŕen...

Habla nuestra

A Arana-Goiri,
memoria y gratitud.

Naciome conmigo el ansia de cantar, y desde niño ese anhelo ha sido en mí entrañable. Intentaba cantar, mas en vano: faltábame la voz, el lenitivo que mi deseo pedía.

Y, como carecía de materia prima, propia y sabrosa, del sonido, aunque emitiese el aliento no podía modular voz musical; como grito entre sueños, la aspereza del rumor me sobresaltaba.

¡Hombre que, muy luego de muerto, vives aún con nosotros! ¡Diaria resurrección de quien está bajo tierra! bendiga yo el nombre de quien nos proveyó de patria y de idioma.

A tu enseñanza debo el haber comprendido que en mí vivía alguien prisionero. Entonces descendí a la sima; a esa sombra que cada uno de nosotros tiene en lo íntimo de sí.

Cauto el inseguro pie, anhelantes los ojos, por retorcida escala bajaba quedamente, llevando en la mano la luz de quien se extinguió por dárnosla.

Oŕa noizpait ere bêraño el,
ta leotza arki dut ondoaren sabel;
ta, leotzean, il-iduri,
gizalaba eder odol-gabez zuri.

Ipui zâŕak, atozte gogora!
Atozte eŕegingai begizkoak zora!
Bazteŕean ikus nerea,
ene ta asaben oaŕezak botea...

Adatsa busti diot negaŕez,
biotza berotu nerearen gaŕez,
ta ito-laŕia arin-beaŕez
leio zekenera dut nerekin naŕez.

Beŕiz-yaio-poza suma nuen...
Gezal mugagabez bide-ginyoazen:
bizitza-itsaso otxan barea,
goiz-eguzkiaren txinpartez ernea!

Ezpañak dardar, lepo-zañak ler-
beaŕean, muinki dut estu nere eder
besoetan, ta atsa yaurtiki:
ta ura bai, egin zan aoan abesti!

Apaldiak elkaŕen ondoren
yalki ta, uso zuri antzean, zetozen
itzuli, itxaso urdiña zear,
mokoan, edergai, basoaren abar.

Y héme aquí por fin que llego abajo, y encuentro que mi cóncavo fondo era una mazmorra: y, en ella, semejante a un cadáver, una bella mujer, blanca por la carencia de sangre.

¡Venidme a las mientes, consejas de antaño! Y vosotras, princesas que encantó un maleficio! La mía yace ahí, vedla, por inconsciencia mía y de mis antepasados...

Mojé sus cabellos con llanto, calenté su corazón en la llama del mío, y, queriendo aliviar aquel torturante ahogo, arrastrela en mi compañía a una mezquina ventana.

Y sentí la alegría de nacer de nuevo. Parecíamos navegar por una inmensidad salobre, mar del vivir, manso, sereno, florecido de chispas del sol de la mañana.

Trémulos los labios, a punto de estallarme en el cuello las venas, estreché apasionadamente en mis brazos a la hermosa y lancé el aliento; y aquel sí se hizo en mi boca canción!

Unas tras otras desgranaba mis estrofas, y ellas, en figura de palomas blancas, regresaban, a través del mar azul, trayendo por adorno en el pico una rama de bosque.

Ìtzuli zetozen âpaldiak;
itzuli zetozen nere uso txuriak
Abeŕiarentzat damesgun
legor gizenetik, yai-ostoa lagun...

* * *

Ene leozpetu yare-beŕi,
eusko orok zaitzagu miñen eztigaŕi,
ta besteren gogo-menbetik
yare-gagizu usu, geurea gaiturik!

1931.

Retornaban mis estrofas; retornaban mis blancas palomas, con un ramo de fiesta, de la tierra feraz que soñamos para la Patria.

* * *

Prisionera mía recien libertada, hayámoste los vascos todos como lenitivo de nuestras ansias; y del ajeno espíritu libéranos pronto, capacitando el nuestro.



BIL ABIDEA

(ÍNDICE)

	g.		oŕ.
Yaun eŕukioŕa. . .	2	Dios de piedad!. .	3
Oia	4	La cama . . .	5
Mendi-gaña . . .	16	Cumbre de montaña	17
Zeru-azpia	20	El revés del cielo .	21
Aldakeri	26	Veleidad. . . .	27
Xabiertxo'ren eriotza.	40	Muerte de Xabiertxo	41
Neskatx urdin-yantzia	56	La doncella vestida de azul . . .	57
Bultzi-Leiotik . . .	64	Desde el tren en marcha. . . .	65
Paris'ko txolaŕea . .	68	Gorrión parisién. .	69
Otartxo utsa . . .	74	El cestillo vacío. .	75
Agur!	80	Adiós!	81
Biotzean min dut . .	84	Duéleme el corazón	85
Zuaitz etzana . .	98	Arbol yacente . .	99
Urte-giroak ene begian:		Paisaje de las estaciones:	
I Negu (Bizia lo) .	106	I La vida duerme.	107
II Udaberi (Sagar lore)	110	II Manzano en flor	111
III Uda (Baso itzal) .	118	III Bosque umbrío .	119
IV Udazken (Ondar goŕi)	126	IV Roja arena . .	127
Eusko-bidaztiarena .	134	Canción del vasco viajero. . . .	135
Asaba zâŕen baratza .	144	Huerto de mis antepasados . . .	145
Izotz-ondoko iguzki .	154	Sol sobre el hielo .	155
Gure mintzo . . .	162	Habla nuestra . .	163